

URRUZUNO
literatur lehiaketa
1990

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila
Euskara – Zerbitzua

Logo of Eibar City Council
Eibar
Eibarko Herkuntako Espartua
943.20.27.43
20600 EIBAR




HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA
EUSKARA ZERBITZUA

irakaskuntza ertainetako

URRUZUNO

literatur lehiaketa 1990

LAN SARITUEN BILDUMA



Gasteiz 1990
EUSKO JAURLARITZAREN ARGITALPEN ZERBITZU NAGUSIA

Lehenengo Argitaraldia: 1990eko Iraila
Ale kopurua: 3.000

- © Euskal Herriko Autonomi Elkarteko Administrazioa
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila
Azala: Jesus Iturriza
Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Wellington Dukearen kalea, 2 - 01011 Gasteiz
Fotokonposizioa: DIDOT, S.A., Nerbioi kalea, 3 - Bilbo
Inprimatzailea: GRAFO, S.A., Cervantes, 59 - Basauri
I.S.B.N.: 84-7542 - 849-5
Lege Gordailua: BI - 2034-90

AURKIBIDEA

Hitzaurrea		7
Idazle berriak. Jose M. Satrustegiren Aintzin Solasa		11
Prosa: A maila		17
● Amona, egia ote?	Belen Azkarate Ega- ña	19
● Azken gogoetak	Arantxa Mendieta La- sarte	29
● Heriotz Andereak zuria du laket	Amaia Ezkiaga Ipa- rragirre	39
● Jostailu berria	Nagore Urbizu Uribe	47
● Zu ez zaudenean	Maidar Jauregizuria Lopez	57
Prosa: B maila		63
● Beharrezkoa	Leire Sarobe Txopei- tia	65
● Emagalduek deitzen gaituzten horiei	Nagore Kano Orma- zabal	75
● Goizeko auri artean ...	Yolanda Zorita Arra- tibel	83
● Heriotzaren oihua	Ainhoa Sansinenea Aizpurua	91

● Superbizipenaren burru- ka ikaragarria	Ainhoa Muruaga Le- jona	101
Poesia: A maila		111
● Bi hitz nire pentsamen- duen maizterrari	Maria Aranburu Ase- ginolaza	113
● Bizitzaren gurpilean ...	Gorka Urzelai Izagi- rre	119
● Ezezagun maite	Eriz Zumarraga Az- karate	125
● Semeak beti seme	Izazkun de los Mozos Olaizola	131
● Une hartan... eta orain	Patxi Galarraga Aies- taran	137
Poesia: B maila		143
● Amodioaren itsasoa ...	Garikoitz Berasaluze Ostolaza	145
● Auñamenditik zure le- hiora	Garikoitz Berasaluze Ostolaza	151
● Betidanik, betirako	Ion Alvarez Gerriko.	155
● Omnia vincit amor— maitasunak dena garai- tzen du	Agurtzane Auzmendi Agirre	161
● Plisti plasta	Belen Oronoz Antxor- doki	167
● Ezetza	Mikel Madina Ugar- temendia	173

HITZAURREA

Bostgarren urtea bete du, oraingo honekin, Irakas-kuntza Ertainetako URRUZUNO LITERATUR LEHIAKETAK. Berri pozgarria aurten ere! Partaidetzak erruz egin du gora: iazko 395 lanetatik 602 lanetarainoko jauzia egin du aurtengoan.

Epaimahaia honako literatur gizon hauek osatu dute:

Joxe Mari Satrustegi
Jesus Mari Lasagabaster
Luis Haranburu Altuna
Jon Kortazar
Bernardo Atxaga

Sari bakoitzari honako hau dagokio:

- Irailean Jugoslaviara egingo den bidaia.
- Bidaia horretako norbere gastuetarako laguntza: 25.000 pzta.
- Oroigarri bat. Irailean emango zaie irabazleei, horretarako bereziki antolaturiko ospakizunean.
- Lana bilduma honetan argitaratu eta eskoletan zein parte-hartzaileen artean zabalkundea egitea.

Ikastetxeei egiten zaizkien aipamen berezietan, aurreko urteetan berau jaso duten ikastetxeek bere horretan darraitela ikusten da. Aurtengoan aipamena beste bi ikastetxe hauei egitea erabaki du epaimahaiak: Zarauzko Lizardi Batxilergo Institutuari eta Donostiako X. Zubiri Batxilergo Institutuari.

Zorionik beroenak irabazle guztiei eta beroien zein aipamena jaso duten ikastetxeetako arduradunei!

Azkenik, eta hau ere epaimahaiaren erabakiz, hona hemen saririk irabazi ez zuten arren epaimahaiaren eztabaidetan azkenekoetara iritsi zirenen aipamena:

Prosa A maila

- Heriotzaren itzala **Ainhoa Aranguren**
- Krudelkeriaren islada ezta **Maria Aranburu**
- Idazlea beti idazle **Asier Kastañares**
- Aldaketak **Aitziber Galparso-
ro**
- Hori al zen dena? **Xabier Txurruka**

Prosa B maila

- Ametsa ala errealitatea **Kaiet Arrizabalaga**
- Amets gaizto bat soilik? **Loraine Lekuona**
- Bukaezina den ihesa **Idoia Larrea**
- Arrantzale baten bizitza **Isabel Etxeberria**
- Non dago argia? **Ainhoa Ruiz**

Poesia A maila

- Ansiedadez **Mattin Gartziandia**
- Crescendo **Montse Panadero**

Poesia B maila

- Mendiari otoitza **Jon Lertxundi**
- Zuhaitz baten bizia **Itziar Lete**
- Bihotzaren samina **Leire Basauri**
- Gaur bezalako egun batez **Miren Barandiaran**
- Hark, zuek eraman zintuzten! **Ibon Salaberria**

IDAZLE BERRIAK

Jose M. Satrustegiren
AINTZIN SOLASA

Hiztunen panpina da hizkuntza, eta herri bakoitzak badu berea.

Ez du hezur eta mamiarik. Hutsunearen gabezia hutsa besterik ez da berez, mintzairaren arnasak ez badio berritzen egunero bizia. Luzezabalaren hedadura ikuspegi soiletik, beraz, erraldoia izan daiteke hiztunen panpina, ala ipotx edo ñañoa. Mintzoaren merkatuak gorpuzten du, azken finean, bere neurri eta garrantzia.

Baina, hiztunen gizakopuruaz bestalde, esatariari barne-muinetatik darion beste isuri baten dohain eraginkorra ere badago eta edozein hizkuntza, haundi nahiz txiki, antzalda lezake, ingurumena eta itxaropen guzien zero urdina dizdira biziz apainduz eta xarmatuz.

Panpina sentibera bihurtzen da orduan zeruaren begi urdinekin mundu beltzaren lotsaizunak ikusteko eta hitz politen ikutu goxoz bihotz erreen taupada hilkorrak gizar-teari amultsuki aldarazten joateko.

Biziaren haritik, horrela sortzen da gizonaren hizkuntza arruntaren ahoan jainkoen jakintza astingarri eta maitekorra, olerkariaren hegaldi pizgarrien eskutik, mito

guzien zurrumurru zabalak, ipui miresgarrien amets zuriak eta esaera zaharren altxor zuhurra gizaldiz gizaldi sortu dituena.

Hizkuntzaren panpinak badu orduan izen propioa: *Herri-jakintza*.

Idazlea

Literatura sorketaren egosketa ikustezina da, begiak itxita ez bada; barnera begira alegia. Oihan nabarreko basahuntz lasterkariaren antzera, arrosa koloreko argi-printzen ñir-ñir bizienetatik heriotzean ehortzitako gauaren aho beltzera doa, trapalan, itzal mugikor guzien irudimen mamituezina. Gozoa batean, bestean kiratsa bizia bera bezala, idazlearengan du sormenak bere ama-sabela eta gero, erdiminen gozamen gazi-bizia.

Paperaren azal zurian bere anima hustu duen panpina ez da aita-ama gabeko umezurtz hor nonbait sortua, guraso izen-abizendun jakin batzuren lorategi maitagarriko kimu pozgarria baizik: *Literatura idatzia*.

Belaunaldi berria

Gazteen eskuetan baldin badago herriaren etorkizuna, herri horren hizkuntza landuari dagokionez ez da inoiz hain itxaropentsu azaldu euskal literaturaren geroa. Ehundaka neska-mutil alfabetatuk lantzen du, inoiz ez bezala, euskararen sorketa mundua, eta zaletuen baratzea ongi jorratzen hasia delarik, goi mailako heldutasunaren lorategiko emaitzarik ere itxaro daiteke.

Betiko gure basamortu lehorretik ibai ondoko lur gizen hezeetara birlandatua izan da, zorionez, gaztetxo hauen belaunaldia eta, inork ezin uka ibiliz egiten dela bidea, eta idatziz idazlea.

Saiatuen kopurua ez ezik, hain urte gutxirekin denbora asko irakurtzen igarotakoaren heldutasun sinestezina somatzen da zenbait idazle gazteren burubide zehatz, azalpen garbi eta orrazkera txukunean. Pozgarria benetan.

Giroaren lehen iturrietara bagoaz, bestalde, literaturzaletasunaren alboan bada beti, baserriko lurretan bezala, ereile, epaile edota zuzpertzailereren bat, eta txalogarri da zenbait ikastetxetako lanen kopurua eta maila.

Idazle gazte hauen arteko ezagutza eta adiskidantza erakargarria gerta daiteke, gerorako, beste zutabe baliotsu bat. Lagungiroan lorpenak eta ametsak egosi eta bide berrien aldatzak eta barneko kezkek elkarrekin eztabaidatzea izan da munduan zehar idazle ospetsuen mintegi eta ingude emankorra. Adierazgarria izan daiteke benetan, sarituek Europa aldera egindako ateraldiren batean literatur-gaiak izan zituztela euren solasaldi nagusiak, jakitea. Eta orduko ezagupenak badu, bestalde, jarraipenik.

Belaunaldi berri pozgarri baten aurrean gaude. Lehiaketa hauetan nabarmendutako izenen bat edo beste euskal idazleen izartegi gorenera iritsi daiteke, bideko lanbroek ez badute desbideratzen. Eta beste izen multzo baten lekuko, hemen dago Urrunzuno Literatur Lehiaketaren bostgarren liburukia. Zorionak irabazleei.


Gazte hauen helmuga gizartearen gora-beherekin loturik dago. Idaztea, azken finean, barne-muinetan ernaldutako emankortasunaren erdibeharra bada ere, ezin ahantz plazara begira gauzatzen dela.

...irakurlerik izango bada behintzat, idazle berrien panpina ponpoxak lotsaizunik gabe, gaztetasunaren hezetasun garbiarekin, apain eta lirain, jantziko du euskara zaharraren ama-magala.

Jose M. SATRUSTEGI
Euskaltzaindiko idazkaria

PROSA. A maila

B.B.B.ko 3. kurtsoa, U.B.I.
L.H.ko 2. gradua eta
I.E.E.ko 2. zikloa.



Amona, egia ote?

Belen Azkarate Egaña
Batxilergo Institutua
BERGARA

Urteak aurrera badoazkit eta bizitza beste era batera ikusten dut orain. Mundu honetan mendea betetzeko hogeitabi urte falta zaizkit bakarrik eta badakit aurki zerraldo batean sartuko nautela, eta hemendik urte batzutara inor ez dela nitaz oroituko.

Lehen, gaztea nintzela, lagun asko ibiltzen ginen elkarrekin, baina poliki-poliki gutxitzen joan gara eta orain bakar batzuk besterik ez gara geratzen.

Noiz iritsiko zait niri horietako zerraldo ilun batetan sartzeko ordua? Ni izango al naiz hurrengoa? Horrelako galderak egiten dizkiot neure buruari, baina ez dut inolako erantzunik aurkitzen.

Urteak badoaz aurrera eta laster iritsiko zait inork desiratzen ez duen momentua. Ez dut momentu horretan pentsatu nahi, baina ezin dut neure burutik pentsamendu hori baztertu. Tripako minak sortzen dizkit zerraldo hitza entzuteak.

Gaur goizean hil kanpaiak entzun ditut. Nor izango ote da? galdetu diot neure buruari. Beharbada, istripuz hil den norbait izango da, baina kalera hurbildu naizenean nire gaztetako lagun bat dela esan didate. Bat gutxiago, pentsatu dut.

Arratsaldean, nire laguna zenaren elizkizunetara nindoala eta emakume batzuren albotik pasatzerakoan, zera entzun dut:

—Urteak ere bazituen gizarajoak.

—Bai, eta urte horiekin zer itxaron daiteke zerraldoan sartzea baino?

—Gainera, urte horiekin eta gizon horrek zuen osasunarekin, karga bat besterik ez zen bere familiarentzat.

—Bai, nik ere horixe bera uste dut. Bere alabak beti bere gainean ibili behar zuen eta gainera arrandegian nengoela, norbaitek esan duenez, burua ere ez omen zuen oso ondo...

Hau entzun eta begiak malkoz bete zaizkit. Nire familiak berdin pentsatzen al du nitaz? Nire itxaropen bakarra ere zerraldoan sartzea al da? Bai noski, zer itxaron dezaket hori izan ezik? Nire osasuna ezin hobea da, baina ditudan urteek ez didate barkatzen.

Momentu batez, denbora geratzea gustatuko litzaidake eta berriz gazte izan, bizitzako momenturik ederrean egon. Momentu batez besterik ez, baina hau ezinezkoa da. Orain oroitzen bakarrak gelditzen zaizkit, baina oroitzen hauek pentsatzen hasten naizen bakoitzean ene buruan beste irudi batzuk agertzen dira. Neure burua ikusten dut, lehenengo nire bizitza guztia agertzen da pelikula bat balitz bezala, eta gero, han agertzen naiz ni, momentu honetan, aurrean daukadan horma zuria baino aurpegi zuriagoz eta zerraldo baten barruan begiak itxirik. Hilik nago! Zerraldoa ixten dute, ni barruan uzten naute-larik. Ez, ez, oihukatzen dut, ezinezkoa da. Bizitza eder bat izan dut eta orain horrela bukatu beharra ezinezkoa iruditzen zait, sinesgaitza.

Nik neuk bota ditudan oihu horiekin berriz ere munda itzuli naiz. Pentsamendu hauek geroz eta gehiago datoz nire burura, saiatzen naiz hauek deusezten baina ezinezkoa da, alferrikakoa. Ezin dut sinetsi, gaur hemen nire bizitzaz pentsatzen eta bihar beharbada zerraldo ilun eta hotz batean, lur azpian eginiko zulo batetan egotea posible izango litzatekeenik. Inor ikusi gabe, inorekin hitz egin gabe, barre egin gabe...

Gaztea zarela ez zara konturatzen bizitzak duen gauza zoragarriez, baina gero, zahartzen zarenean eta hiltzeko gutxi falta zaizula ikusten duzunean, zera pentsatzen duzu: Oraingo gazte hauek ez dira gure garaietakoak bezalakoak, gu askoz hobeto ibiltzen ginen, nahiz eta ez eduki orain duten aurrerapenik, ni orain gaztea banintz... Baina ez, nire gaztaroa igaro zen eta nire bizitza ere bere bukaerara iristen ari da, eta orain itxarotea gelditzen zait bakarrik.

Gaua iritsi da. Ezin dut lorik egin. Ilunpeak beldur haundia ematen dit eta lo hartzeak are gehiago. Lo hartzen badut beharbada bihar ez naiz esnatuko eta gaur gauean lo hartzen dudan momentutik ez dut gehiago ene etxea ikusiko, ez ene herria, ezta gehien maite ditudan pertsonak ere.

Baina atzo gauean lo hartu nuen eta gaur goizean oso goiz esnatu naiz. Eguzkia irteten ikusi eta berriz ohean sartu naiz, ez bait dut oso ondo sentitzen neure burua, ibiltzerakoan hankak oso pisutsu sentitzen ditut eta erdi zorabiatu aurkitzen naiz. Orain arte, urte asko nituelakoan nengoen, baina osasuna ondo. Orain berriz, urte asko izateaz gain, osasuna ere ahultzen hasi zaidala uste dut.

Nire barneak zerbait esan nahi dit. Ez nago zeharo lasai. Heriotza gertu dagoela nabari dut. Gaztetan, jende guztiak bezala izan nituen neure gorabeheratxoak, baina

izan dudan bizitzaz ezin naiz kexatu, beste askok baino bizitza luze eta hobeagoa izan bait dut.

Txikitan beti jakin nahi izan nuen hiltzeak edo betirako lo hartze horrek zer esan nahi zuen. Hil eta gero zer gertatuko zitzaidanaren kezka izaten nuen. Gogoratzen dut, egun batez ene amonari galdetu niola hiltzeak zer esan nahi zuen, baina berak erantzun zidan denbora iristean jakingo nuela. Orain badakit zergatik erantzun zidan amonak era horretan. Uste dut berak ere bildur haundia ziola hiltzeari. Amonaz pentsatzen hasten naizenean konturatzen naiz, nik galdera hura egin nionean bera jadanik oso zaharra zela, eta uste dut berak garai haietan, nik orain ditudan pentsamendu berdinak edukitzen zituela. Ni oso gaztea nintzen, eta ez naiz amonak esandako gauza guztiez gogoratzen, baina sekula ez zait ahaztuko berak hartu zuen poza larogei urte zituela, herrian zortzigarren hil kanpaia entzun zuenean. Nik ez nuen ulertu amona zergatik poztu zen kale ertzean bizi zen Balentina hil zenean; baina arratsalde batez, nire amak bere magalean eseri ninduen eta ipuin bat balitz bezala kontatu zidan nik uler nezan. Gauza zera zen: gure herria oso txikia zen; bertan, zazpi edo zortzi pertsona hiltzen ziren urtean. Horregatik, berak zortzigarrenaren hil kanpaia entzun zuenean eta hil zena nor zen kontutan hartu gabe, sekulako poza hartu zuen, bere ustez eta ohitura zen bezala, ez bait zen inor gehiago hilko urte horretan, eta bera urte bat gehiagoz biziko zen.

Baina orain gauzak aldatu egin dira. Orain ezin da kontutan hartu zenbat hiltzen diren, horren ondorioz jadanik urte horretan hil behar dutenak hilda daudela jakiteko. Herria, industria dela medio haunditzen joan da. Lehen familia batenak ziren lur sailetan, orain lauhun pertsonak egiten dute lan, eta lauhun pertsona hauek herrian gelditzen dira bizitzen. Honela, herri txiki eta lasaia, etxe

luzez beteriko herri haundi eta zaratatsu bihurtu da. Bertan, kotxeak ere gehituz joan dira eta istripuz hiltzen den jendea geroz eta gehiago da.

Nire gogoetak alde batera utziz, ordulariari begiratu diot; honek, berehala, hamar kanpaikada jo ditu. Hamarrak dira. Hau da ni egunero jaikitzen naizen ordua, baina ez naiz esnatu naizenean baino hobeto sentitzen eta, gosaritarako gogorik ere ez dudanez, ez naizela jaikiko erabaki dut. Beharbada ez zait ezer garrantzizkorik gertatuko, baina nik zerbait txarra dudanaren susmoa dut.

Nire azken orduak direla badakit, baina hau ezin du inork aldatu. Beldur piska bat ematen dit, baina orain arteko guztiak pasatu dira hemendik eta ni ez naiz gutxiago izango.

Orain dela urte askotako gauza asko ondo gogoratzen ditut eta atzo zer gertatu zitzaidan ez dut gogoratzen, burua galtzen hasia naizela uste dut. Nire indar guztiak minutuz minutu ahulduz doaz eta nire ikusmena ere bai. Badakit gaurtik ez naizela pasatuko, hau da, biharko eguna ikustera ez naizela iritsiko, baina daukadan tristura bakarra, bakarrik hil beharra da, nire alaba ere ez bait da nire ondoan aurkitzen.

Lo hartu dut. Esnatu naizenean, eta eguzkiak ematen duen berotasunagatik, eguerdia dela esango nuke. Ordulariari begiratu diot nire usteak baiezteko. Ez dut oso ondo ikusten, baina ordubata dela iruditu zait. Begiak ahultzen hasi zaizkit. Leihora hurbiltzen saiatu naiz, baina egin ditudan ahalegin guztiak alferrikakoak izan dira. Nire hantek ez dute nire buruak agindutakoa bete nahi, eta ez dira ohetik hiru zentimetro ere mugitzen.

Bizitzari agur esateko edo, nire iraganaren zerbait gogoratzea gustatuko litzaidake, baina nire buruak jadanik

utzia dio lan egiteari, eta ezinezkoa gertatzen zait ezer gogoratzea. Begiak itxi eta ahalegin guztiak egin ditut nire buruan zerbait ager dadin, baina nahiz eta hirurogeitamazortzi urte eder bizi izan mundu honetan ez da ezer agertzen ene buruan. Orain dela urte batzuk norbaitek esan balit hau gertatuko zitzaidala ez niokeen sine-tsiko.

Begiak ireki ditut, baina itxita bezainbeste ikusten dut, hau da, ezer ez. Sekulako ilunpean murgildurik aurkitzen naiz, eta besoak eta hankak, lo baleude bezala sentitzen ditut.

Hau al da hiltzea, amona? Iritsi al zait hiltzea zer den jakiteko ordua?

Mundu honetan pertsona askok lagundu nau eta nik ere pertsona asko lagundu dut. Pertsona askok maite izan nau, eta nik ere pertsona asko maite izan dut, baina ez nuen uste azken momentu hauetan horren bakarrik egongo nintzenik. Gogorra egiten zait benetan hau onartzea. Beti jende artean ibili izan naiz, nire etxeko ateak beti zabalik egon dira zetorrena zetorrela, eta nik ere beste etxeetako ateak zabalik aurkitu ditut beti. Eta orain nik zera galdetzen dut: non da ni maite izan nauen jende guztia? Non dira nire etxera kartetan jolastera edo eta nirekin hitz egitera etorri izan diren nire lagun maiteak? Ez al dute etorri behar ni agurtzera? Ez noski, bakoitzak bere lanean jardungo du eta inor ez da nitaz oroituko. Zergatik oroitu nitaz? Hemen egon ziren azken aldian ezin hobeto bait nengoen.

Momentu batez argi izpi bat ikusi dut, eta gero, berriz, aurretik aurkitzen nintzen iluntasunean murgildu naiz. Jandantik ez dakit non ditudan ene hanka eta besoak.

Arratsaldeko laurak jo dute. Ni ez naiz ohetik mugitu, baina nire alabaren hanka-hotsak entzun ditut eskailerak


igotzerakoan. Nire logelako atea ireki du eta aurpegiko kolorea ere aldatu zaiola uste dut. Logetan sartu eta hiru edo lau minututara entzun ahal izan dut berak esan ahal izan duena. Ez da ondo ulertzen, baina bihotz barrenetik atera zaizkion hitzak izan dira: Aita, ez, ez, zergatik? AITA...

Nire ondoan eseri eta nirekin egon da ordu laurden bat inguru, nire ondotik mugitu ere egin gabe. Asko maite nauela esaten aritu zait. Nik ere asko maite dudala esatea gustatuko litzaidake, baina hilik nago eta ezin dut ezer esan. Zergatik? Zergatik ezin diot esan ezer nire alabari? Nire alaba da, ezta?

Poliki-poliki jaiki eta ateruntz aldendu da, segundu batez ere niri begiratzeari utzi gabe. Behera joango da, behean bait daukagu telefonoa eta seguraski apaizari deituko dio nire berri emateko.

Nire usteak egiak izan dira, hamar minutu baino lehen hil kanpaiak entzun ahal izan bait dira Santa Ana elizako kanpandorretik. Ziur aski jendea dagoeneko niri buruz hitz egiten hasia izango da: «gizarajoa», esango du norbaitek, «bai, gizarajoa» erantzungo dio beste norbaitek.

Atzo nire gaztetako lagun bat hil zen eta nire galdera zera izan zen: nor izango ote da hurrengoa? Ez dut asko itxaron behar izan galdera honi erantzuna aurkitzeko, ni izan naiz hurrengoa. Ni izan naiz aurtengo zortzigarrena. Sekula ez dut amonaren teoriarik sinetsi, baina hala eta guztiz ere, beti kontatu izan dut herrian zenbat hiltzen diren. Batek baino gehiagok barre egingo du hau entzutean, eta nik neuk ere tontakeria bat dela uste izan dut beti, baina herrian zortzigarren hil kanpaia entzuten nuenean nolabaiteko lasaitasuna sentitzen nuen neure barrenean.



Azken gogoetak

Arantxa Mendieta Lasarte
Sto. Tomas Lizeoa
DONOSTIA

Gela txikiaren leihotik at egun berriaren jaiotza isila dakusat. Lehen eguzki izpi lasaiek doi-doi argitzen dute garai batean Pekin zoragarria izan zenaren itzala. Jende multzo txiki bat bere lanetara doa, ez doaz presaka, baina nabari zaie ez dutela denborarik galdu nahi. Ezin ditut ulertu hauen lanari ekiteko gogoak. Baliteke, azken kartzelaratzeeen ondoren, beldur izatea; ez dut uste, dena den, egoera konpontzeko biderik onena hori denik.

Egia da gauza bat geroz eta ederrago, indartsuago eta boteretsuagoa denean, are eta negargarri eta izugarriagoa dela bere amaiera. Ez pentsa gero Pekin bukatua dagoenik, ez eta gutxiagorik ere! Baina horren mingarri egiten zait orain nola dagoen ikustea!

1286.go udazken honetan bete ditut hogeitahiru urte. Eta enperadorearen azken agindua irakurri ondoren ez dakit ene bizitza hasi ala amaitu egin den. Batek daki. Momentu hauetan gizona hain bakarti zergatik sentitzen den galdezen ari natzaio etengabe neure buruari.

Taishien herri txikian jaio nintzen eta Xu Xiao Liang izena eman zidaten neure gurasoek. Aita errementaria nuen eta honengandik jaso nuen armak erabiltzeko erraztasuna.

Taishien naturaren paradisu deitu ohi zuten bere inguruneagatik; Huto Ho ibaiak freskotasuna ematen zion eta Wutai Shanek, Shansi probintzia osoko mendi altuena zenak, itzal eta babesia.

Zoriontsu nintzen, baina gizakia ez da sekula ere duenarekin ados aurkitzen, eta beste zerbait aurkitzeko grinak bere eskuetan hartzen duenean, askotan lehen zuena ere galdu egiten du, eta behin eta berriro berean badabil ere, ez du inoiz ikasten; eta, hau esanda gero, suposa al dezaket ene jaioterri izan zen Taishianen zoriontsu izan nintzela? Ez dirudi hala izan zenik, beste zerbaiten bila alde egin bait nuen. Beraz, pentsa dezaket gizonak sekula ere ez duela zoriona bere osotasunean eskuratzen, ez badio, noski, bere buruari ulertarazten zorionak posibilitate muga batzu dituela eta hauek mantendurik limitea aurkitzen saiatu beharra duela.

Mende erdia baino gehiago pasa da, beraz, Gengis Kan, gaur egun gure enperadore denaren aitona, Pekinen sartu eta birrindu egin zuenetik.

Hala ere, egoera asko hobetu da azken urte hauetan: aitak behin hiriko saltzaile bati erositako marrazki batzuetan ikusi ahal izan nuen Pekin nola gelditu zen mongoliarren erasoaren ondoren; orduantxe ulertu nuen lehen aldiz zenbait gauza marrazki eta irudien bidez bezain ongi ezin direla inoiz ere hitzez adierazi; ez noa, beraz, egoera deskribatzen saiatzera, ez naiz sekula ere kontalari ona izan eta.

Eta mongoliarrek Txinaren lurralde zabala bereganatzen ari diren urte hauetan erabaki dut Pekina etortzea, eta izan dut bai damutzeko aukerarik. Onartu beharra daukat, dena den, gauza onik ere ezagutu dudala hirian. Hauen artean leudeke irakurri ahal izan ditudan istorio zoraga-

rriak; ez nuke nahi, noski, guzti haien pareko izaten saiatzen ari naizela pentsatzerik, ez bait nuke inoiz ere lortuko.

Bidai istorioak izan ditut gustokoen: Mendebaldetik etorritako Marco Polo eta Guillermo de Rubruckek eka-rritako berrienak batipat. Gure herrialdea hauen ikuspegitik zer eratan ikusten den jakin nahi nuke; ez dut uste, hala ere, hori nolabait adierazteko denborarik izango dudarik eta, bestalde, ez da nere esku egongo haiek idatzitakoa irakurtzerik.

Tamalgarría.

Azken urte hauetan Kublai Kan enperadore dugula, hartu dute indar gehiago mongoliarren aurkako mugimenduek, Klan Haundiak duen Txina bereganatzeko insisten-tziagatik batez ere. Pekin ingurune guztia eta Iparraldea Mongoliako inperio zabalaren parte dira jadanik. Mugimendu hauek ez dute, dena den, enperadorea inola ere larritzen, orain arte primeran konpondu ditu izan dituen arazoak, azken hilabeteetako heriotz kondenak oso-oso ugariak izan dira, enperadorearentzat hau bait da arriskua-reakin bukatzeko biderik seguruená. Eta nik, hona zorion-tasun bila iritsi nintzenak, sofrituko dut neurri hauxe.

Irakurri izan dudanaren arauera, Mendebaldean ematen diren ejekuzioek ez dute zerikusirik hemen gertatzen direnekin. Aipatu dut lehen zein gogo biziz irakurriko nu-keen nik gure herriaz atzerritarrek duten iritzia, eta, era berean, pentsatzen ari naiz noizbait interesgarri bilaka dai-tekeela ni orain idaztera noana eta ejekuzio sistemaren berri ematea erabaki dut.

Esan behar dudán lehen gauza zera da: Kublai Kanek errebolta-riekin (eta deuseztu nahi dituen beste batzurekin) aplikatzen duen sistema ez dela bestelakoetan ezartzen due-

naren gisakoa, baina ni zuzenki ikutzen nauena lehenengoa denez, hari buruz hitz egitera noa:

Presoak, epaia ezagutu ondoren noizbait gaizki pasatzen badu, kasu hauetan izaten da; ez zaio kanpoko ezer eta inorekin kontakturik izaten uzten, arriskutsua bait litzateke, eta ez zaio, bestalde, ejekuzioa noiz izango denaren berri ematen, erabaki hau ez du inork ezagutzen enperadoreak ezik, hau segurtasuna mantentzeko neurria omen da. Eta, noski, bi elementu hauek kontutan harturik, presoak bere garaia noiz iritsiko den jakin gabe pasatzen dituen ordu gogoetatsuak jasanezinak izan ohi dira. Esan diezadatela, bestela, niri.

Ez dakit Manguren aginte garaian egongo bagina gauzak ezberdin liratekeen. Beti esan izan ohi da joandako aroak hobeak direla. Hemen nago, dena den, eta horrek ez dauka irtenbiderik.

Presoak, eta kontakizunarekin jarraitzera noa, jauregiaren erdikaldeko enparantzara eraman eta bertan, gutxi gora behera seinaka edo, ilargi erdiko itxura duen lerroan jartzen dituzte. Lerro honen erdigunean sortzen den zokotxoan metro bat inguruko egurrezko dorretxo bat eraikitzen dute.

Oraintxe ikusi dut enperadorearen zaldia jauregira sartzen; itzuli da, beraz, bere domeinuetan zehar egin duen bi astetako bidaiatik. Festa izango dugu gaur hirian, goza dezatela. Ez dit gehiegi axolarik, egia esan, hemen egon beharrak, ez bait nintzateke inola ere, agindua irakurri ondoren, ongi pasatzeko gai izango. Etengabe heriotzaren irudia edukiko nukeen buruan biraka.

Presoek kapa beltza eraman ohi dute, leporik ez duen jantzia, noski. Seinakako taldeak bi zaintzaile artean joaten

omen dira. Enparantzaren erdira iristean zaintzaileengana jauregiko beste sei zerbitzari atera eta presoek begiak zapi beltz batez estaltzen dituzte. Ondoren har arazten diete beharrezko posizioa, pentsa al daiteke zer angustia jasan behar duen presoak momentu hauetan? Ez daki nola jartzen ari diren, ez borrarera noiz iritsiko den, ez eta noiz egongo den prest.

Borrarera lehenago ez ikustearen arrazoia honako hau da: hiltzera doanak heriotza sortaraziko dion gizona ikusten badu, eskubidea dauka hau hil ondoren arte itxoin eta berarekin nahiko burruka inpartzial bati ekiteko. Hau, noski, hil ondorengo gerlarien munduan jazoko da, eta Jaungoikoek ez diote borrarerari armarik erabiltzeko eskubiderik emango.

Gauza guzti hauetaz pentsatzen jarduten naizenean ene baitan halako sentazio nahiko arraro eta ezatsegina sumatzen dut.

Esan dut, bai, zenbait gauza ezin direla hitzez oso egoki adierazi, baina nola ulertaraz diezazuket nola sentitu nintzen heriotzera kondenatuak izan zirenen zerrendan zegoen azken izena nirea zela konturatzean? Nola «marrastu» zenbat sufritzen ari naizen ejekuzioaren aurreko ordu hauetan? Ala egunak izango ote? Ez, enperadorea itzuli bada laster entzun ahal izango dugu aginduaren berri.

Beno, noan aurrera denbora amaitu baino lehen. Presoak egoki jarririk daudenean dei egiten zaio borrarerari; hau ere beltzez jantzirik joan ohi da, baina gerriko zabal zuria darama eta bertan eskegirik azken urteotan, dudarik gabe, heriotz gehien sortu duen ezpata. Borreroak, dorretxo gainera igo eta barkamena eskatzen die, eta lehen esplikatu dudanaren arauera arraroa badirudi ere, barkamen hau berehala jasotzen du, hau ukatzen duenak ez bait dauka beste bizitzara pasatzeko baimenik.

Ene gogoetak aurrera doazen eran ulertzen noa zein gutxi ulertzen duen gizarteak borroaren eginbeharra, ez al du inork sekula bere lana gustoko ez duela pentsatzen? Aspaldidanik esan ohi diot neure buruari borroa bere lana okerretakoa dela. Eta bere lagun bat hiltzea suertatzen bazaio?

Heriotza. Beti hain urruti ikusi izan dut mamu hau! Eta orain neure burua heriotzaren hain gertuko kide nabaritzean irrifartxo historikoa sumatzen dut neure baitan. Lasaitasuna eskatuko nieke Jaungoikoei ejekuzio garaian. Tente egon nadila, dardararik gabe, seguru. Unea iritsi arte ez dut, hala ere, momentuaren gogortasuna bene-benetan nabarituko. Hori badakit. Dena den, behin bakarrik pasatzen den unea da. Gaitz erdi.

Jauregiaren ate nagusian zehar zenbait zaintzaile armatu atera dira; hauen artean enperadorearen idazkari nagusia dator. Garaia iritsi delakoan nago.

Kontakizunari amaiera ematen saiatuko naiz, beraz.

Borroak barkamena jaso ondoren, ahalik eta denbora gutxien itxoiten du. Ezpata atera eta bere gorputzaren alde baterantz guztiz makurtuz, indar hartu eta zirkulu eran sei buruak segidan mozten saiatzen da, ahal badu, noski.

Bete dezala ongi oraingoan ere bere eginbeharra, mesedez.

Uste dut begibistakoak direla borroaren akats batek ekar ditzakeen ondorioak.

Giltzaren soinua nabari dut atearen sarrailan.


Iritsi da ordua.

Goardiek ez didate hitzik esan. Ez da beharrik. Berrero ere, haien begien irudiak hitzek baino gehiago balio dit.

Zaintzaileekin enparantzaruntz noan eran, azken egun hauetan ene buruan zoro moduan ibili dudan galdera etengabea dakorkit berriro ere gogora:

Zergatik ni?

Zergatik behartu nau enperadoreak BORRERO izatera?



Heriotz Andereak zuria du laket

Amaia Ezkiaga Iparragirre
Alkertasuna Lizeoa
BEASAIN

Oraindik ere neguko gau beltz eta hotzetan gogoan izaten dut nire herriko subazterra. Bai, negu gordinak ziren nire herriko haiek. Haizeak arima ere izoztu egiten zuen kanpoan. Gu ordea, haurrak oraindik, sukaldeko txoko epelen batean egoten ginen amonaren inguruan goxo-goxo aintzinako ipuin epelak belarriratur.

Beharbada horregatik iruditu izan zaizkit ipuinak beti neguko gauza. Udan, eguraldia ona zenez, kanpoan ematen genuen eguna, jolasten. Negua, berriz, amonaren xamurtasunaren inguruan igarotzen genuen.

Ohitura hau zela eta, izugarri harritu ginen herriko haurrok egun eguzkitsu batean, udaren erdi-erdian, ipuin kontalari bat gurera gerturatu eta plazan ipuinak kontatzen hasi zitzaigunean.

Onartu beharra daukat ez ginela gerturatu ipuinak entzuteko geneukan gogoarengatik, gizon harenganako jakinminak eraginda baizik.

Gizon zaharra zen, amonaren adinekoa edo. Lurrean eseri eta ahots goxoz ipuin bat kontatzen hasi zitzaigun. Hasieran inork ez genion kasu handirik egiten; jazkerak

harritzen gintuen, udako egun eguzkitsu bat izateko larregi bait zegoen jantzirik, neguko arropaz. Baina hura momentukoa izan zen, gero bere ahotsaren xarmak begietara so egin erazi zigun eta piskanaka ipuinean barnerarazi. Konturatu ginenerako ezinezkoa zen handik aldegitia, gizon haren hitzei magia zerien.

Ordu luzez aritu zen ipuinak kontatu eta kontatu. Bere gidaritzapean ekialde misteriotsuko hainbat herri igarri genituen, Afrika izkutuko oihan beltzenak, mendi garaieneko bide bazterrak... Edozer kontatzen zuela ere eder bilakatzeko zen haren ezpainenak.

Gure begiek ez zituzten harenak uzten eta hain geunden burubelari sarturik haren ipuinetan, ez ginen ohartu eguraldia piskanaka aldatzen joana zela. Lehen zeru urdina ageri zen tokian hodei beltz itsusiak ageri ziren. Dexente hoztua zen eguna eta konturatzerako euria hasi zuen.

Orduan bakarrik esnatu ginen gizon zaharraren magiatik eta ttanttan hotzak azalean sentitu genituenean guztiok korrika joan ginen ipuin kontalari gaixoa plazaren erdian utzirik.

Teilalegal baten azpira iritsitakoan atzeruntz begiratu nuen eta haren aurpegi tristea ikustatu euriari so eginez. Oraindik ere ulertzen ez dudan indar batek bultzaturik berarengana hurbildu eta nire etxera etorri nahi zuen galdetu nion, han bero egongo zela. Berak bere begi gozoak niretaratuz guztia eskertzen zidala ihardetsi zidan, joango zela, nekatuegia zegoela eta bidea jarraitzeko.

Gurean afaldu zuen egun hartan. Nire familiako orok geroago aitortu zuen gisan aurpegi izua nabari zitzaion. Afaldu ondoren suaren ondoan esererazi genuen, hotzak zegoela bait zirudien. Nire anaia gazteenak ipuin bat eskatu zion.

—Baina, Iñigo, ez al duzu ikusten hau hotzak da-goela?

—Utzi iezaiozu, andrea, nire hotza ez da suarekin epeltzen dena, barneragokoa baizik. Mutiko, ipuin bat nahi al duzu?

Amonarekin egiten genuen bezala, guztiok bere inguruan bildu ginen. Ipuin berezi bat kontatu behar zigula esan zigun. Oso ipuin bitxia omen zen, bere bizitzaren historia.

Ni orain dela asko zeruak eta lurrak biltzen diren lurralde oparo batean bizi nintzen. Zoriontasunaren erreinu hartan guztia zen epeltasuna eta goxotasuna. Bertako biztanleek ez zekiten zer ziren ez bekaizkeria eta ez gorrotoa. Urtean zehar eguraldia bikaina izan ohi zen eta bertakook lana egin beharrik ere ez genuen izaten, hain bait zen oparoa lur hura. Iluntzero festa alaiak ospatzen ziren, gure zorionaren jakitun izanik, eskerronekoak azaltzea atsegin bait zitzaigun. Paradisuaren pareko zen lur hura...

Goiz batean neskatxa bat azaldu zen herrian. Ez zen gutarra, aurpegia elurra bera baino xuriagoa zuen eta haren begiak kearen grisaren inbidia gabekoak. Zuriz jantzia agertu zen eta ilea berriz eguzkiaren izpien horitasun jainkotiarraz urreztatua. Gaixo zegoelakoaren irudipena izan eta etxeratu egin genuen. Egunak igaroaz zihoazen bitartean gehiago maitatu genuen neskatxa hura, bere begiek inoiz ezagutu ez genuen tristura igortzen zuten eta hain zirudien hauskorra! Askotan galdetu genion bere bizitzaz, baina erantzun bezala beti begirada atsekabetu bat ematen zigun. Ziur geunden gure eginkizuna hura zaintzea zela baina bazen izutzen gintuen beste zerbait ere. Neska hura herrira iritsi zenetik gutariko hamar pertsonak herioa ezagutu zuten eta hori benetan harritzekoa zen; gainera beti

epela izandako eguraldia hotz bihurtzen ari zitzaigun. Baina hala ere gutarikoa bailitzan zaindu genuen eta egunak igaroaz joan ziren neurrian herioak ugaritu egin ziren eta eguraldia ere hoztu. Gau batean hain zen hotza eguraldia, ezin nuen lo hartu eta neskatxaren logelarantz abiatu nintzen. Hara iristerakoan lotan aurkitu nuen, baina amesgaizto baten pean edo... zerbait esaten ari zen. Gerturatu nintzaion esaten zuena entzuteko asmoz eta... ELURRA-REN ANDEREA NAIZ. GUZTIAK HILEN DITUT...

Nire Izua hain izan zen handia non, gertatzen zenaz oharturik, karraxi bat bota nuen eta, nire zoritxarrerako, elurraren anderea esnatu egin zen. Nire izu aurpegia zela eta guztia ulertu zuen. Ezin izango nuela aldegin esan zidan, hilko ninduela beste guztiak hilak zituen modura. Hala zen; etxe guztian begiratu eta inor ez nuen bizirik aurkitu. Herrian ere ez. Korrika herritik ihes egin nuen leku epelago batetara iritsi nintzen arte. Atzeruntz begiratu eta nire herria ikusi nuen laino zuri batez inguraturik eta ahots bat entzun ahal izan nuen: «Hilen zaitut edonora zoazelarik ere!».

Momentu hartan elurra hasi zuen gure gainean eta ihes egin behar izan nuen. Ordudanik hala ibili naiz, iheska, edonora joaten naizelarik ere eguraldia okertu egiten bait da. Ezin dut bere begiradatik aldegin. Heriotz andereak bereganatua nauka. Gazte nintzelarik errez ezkutatzen nintzen baina orain... zaharregia naiz eta atsedena behar dut.

—Begira, amona. Elurra ari du!

—Ene Jainko maitea! Abuztuaren erdian gaude eta!


—Zaude lasai, andrea, biharko pasako da. Esango ote zenidake mesedez non egin dezakedan lo?

Guztiok tristura arraro bat sentitu genuen gure bihotzean gau hartan eta inola ere ezin izan genuen lo hartu.

Hurrengo goiza bero sortu zen; udako egunsentia zen hura. Goizean guztiak bildu eta gosaltzera gindoazenean amonak ipuin kontalariari deitzeko agindu zidan. Nik, zerbaiten susmoa banu bezala, ez nuen joan nahi izan. Amona bera joan zen. Itzuli zenean aurpegia zurbil zeukan.

—Jainko maitea! Hil egin da!

Hori bakarrik esan zuen. Ordudanik askotan pentsatzen dut bere bizia zela zioen ipuin hartaz. Bere azken ipuina izan zen hura, beharbada hoberenetakoa —nork daki?—, baina ordudanik, erremediorik gabe, elurra ikusten dudanean herioaren sentsazioa somatzen dut nire barrren-barrenean.



Jostailu berria

Nagore Urbizu Uribe
Sto. Tomas Lizeoa
DONOSTIA

Begiek isuritako malkoek, beraien bizitza luzatu nahian edo, masail, ezpain eta kokotza laztanduz, poliki-poliki egiten zuten bidaia eta une hartan, leihotik begira nengoelarik, handik begiztatzen nituen haurrak bezala jolastu ahal zen anaia faltan somatzen nuen...

...BAINA... urak, orain, ez zuen plisti-plastarik egiten, ez zuen plastadarik jasaten, ez zuen olaturik sortzen... eta... ur gainean zeuden esponja, pote e.a.-en artean «aingerutxo» txiki bat ageri zen...

Egun hartan aita eta ama erantsi ezineko irribarre zabal batez aurpegia estalirik zutela inguratu zitzaizkidan. Agian, azkenaldi hartan jo eta ke eskatzen aritu nintzen patinetea erositako izango zidaten. Horrelako aurpegia jarri ohi zuten, behintzat, niretzat sorpresa bat zutenean: hala egin zuten Errealeko jokalaria guztiek sinaturiko larruzko baloia oparitu zidatenean eta bi pisutako «Scalextric» berria eta baita «Playmobil»-en indioen kanpamentua erositakoan ere...

Eta orain, patinetea!!!... bazen garaia!!! Izugarritzko pelmada eman behar izan nuen; inoiz ez zitzaidan gauza bat lortzea hainbeste kostatu... baina, azkenean! Banuen

gogoia, bai; izan ere, auzoko lagun guztiek zuten kolore bizitako bere patinete zabala eta nik, ordea, ez.

Bai, sorpresa bat zuten niretzat baina, ez zen patinetea, hain zuzen ere.

«Unai, gustatuko al litzaizuke zurekin jolastu ahal izango duen anaitxo bat?... horrela, bakarrik zaudenean ez zara aspertuko...» esan zidaten gurasoek, anaitxo bat baloi bat edo patinete bat edo... antzeko jostailuren batekin parekatuz. Eta nik ERE hala ulertu nuen. Une batez, pentsakor geratu nintzen, baina «jolastu» hitza aipatu zidatenez eta garai hartan JOLASTEA zenez nire ardura bakarra, asko gustatu zitzaidan eskaini zidaten «JOSTAILU» berria eta... —BAI— erantzun nuen.

—Oso ongi, laster izango duzu zure anaitxoa etxean— erantzun zidaten, bien artean besarkatu eta musukatzen ninduten bitartean.

—Enkargatu al duzue?— galdetu nien oso arduraturik.

—Bai maitea... —erantzun zidaten barre artean.

—Futbolearen jolasten dakiena eta kaka eta negarrik egiten ez duena eskatuko zenuten, ez da?— nire hitzei gurasoen algarek jarraitu zieten...—bestela, beste bategatik aldatu beharko dugu...—jarraitu nuen esaten, serioa, eta gurasoen barre zoroa ulertu gabe.

—Ama...

—Zer duzu bihotza?

—Joxe Mari Bakero izena jarriko diot.

—Ez maitea... Joxe Mari nahi baduzu bai baina, Bakero ezin liteke.

—Jo, zergatik ez?— protestatu nuen—...orduan ez du graziarik... Beno, Batman izena jarriko diot orduan...

—Ikusiko dugu— erantzun zidan aitak eta berriz ere, barre egin zuten biek.

Berria eman zidatenetik, gauero, eta denboraldi batez, amets gaizto berbera izaten nuen: zango luze, argaleko eta moko handi, zorrotzeko hegazti txuria hegan zetorren bide luzea egiteko prest etxerako bidean, mokoan maindire zuriz egindako fardela zekarrelarik eta bertan, nire «Batman». Bide luzeegia zen, ordea, atsedetik gabe egiteko eta hasieran txikia zen nire «futbolidea» handitzen zihoan, bere pisua gero eta astunagoa zelarik. Bide erdia baino gehiago egina zuen hegazti zuriak, baina ordurako leher eginda zegoen eta... fardela moko artetik irristatu zitzaion. Fardel txuriaren goitik beherako abiadura handitzen zihoan eta maindire arteko futbolariak, abiadurak sortutako hotzak bere aurpegia miazkatzean, barre egiten zuen, gertatzen ari zenaren ideiarik ere izan gabe. Puntu txikiz zipristindutako tapiz berdea gerturatzen zihoan, orain, mendi, zuhaitz, etxe, harkaitz...eta bestelakoak ikus zitezkeelarik eta azkenean...nire anaitxoarekin egiten zuten topo eta mila pusketatan zatitzen zen... Orduan esnatu eta gurasoengana joaten nintzen negarrez. Amak anaia ongi zegoela esaten zidan eta belarria, azkenaldi hartan etengabe handitzen aritu zen bere sabelaren gainean jarri eta asko harritzen ninduen tan-tan... bat entzun eta astinalditxo bat sentitu ondoren, asko lasaitzen nintzen.

Bai, azkenaldi hartan amaren sabela handitzen ari zen, Errealeko jokalaria guztiek sinaturiko larruzko baloia baino puztuagoa zegoelarik. Edozein momentutan lehertu egin behar zuela zirudien. Baina, amaren espresio eta ahotsa, egun haietan, inoiz baino gozoagoa zen eta horrek lasaitu

egiten ninduen. Ibilera ere baldartu egin zitzaion: punba-punba, banan-bana jaisten eta igotzen zituen eskailerak...

—Ama, errejimena egin beharko duzu eh! Pottola-pottola zaude eta... —esan nion egun batean, baina azkenaldi hartan hain ezaguna zitzaidan irribarretxo eskaini eta burua laztandu zidan.

Aitaren jokaera ere bitxia zen azken bolada hartan: itxura barregarria ematen zion amaren mantala jantzi eta berak egiten zizkigun bazkari, afari eta bestelakoak. Eta, gainera, ama portzelanazko panpin bat bailitzan zaintzen zuen, amaren edozein mugimenduri aitaren «kontuz» larrituak jarraitzen ziolarik.

Eta azkenean iritsi zen hainbeste esperotako eguna: Eguerdi hartan ikastolatik itzuli eta etxean aita baino ez zegoelarik, amarengatik galdezka hasi nintzenean... «Laster izango dira ama eta anaia etxean» —esan zidan aitak.

—Anaiaren bila joan al da? —galdegin nion.

—???... Bai.

—Sondikara???

—Beno ba...

—Aupa! Gezurra esan zenidatela pentsatzen hasia nintzen.

Egun batzuk geroago, eta orduan ere ikastolatik itzuli ondoren, aitarekin puxika bat zirudien sabel handia dagoeneko txikitu zuen ama aurkitu nuen, besoetan ximurduz betetako animalia txiki bat zeramalarik. «Hemen duzu anaia»— esan zidaten. Anaia? Gauza more hura al zen nire anaia? ...Errege egunean erregali ederrak espero dituen haur bihurriak ikatz puskak ikustean sentitu ohi duen

negargurea bezalakoa sentitu nuen nik ere. Indarrrik gabeko monstro txiki hura, ibiltzeko gai ez zena, mugitzeko ere ia gai ez zena, JOLASTEKO GAI EZ zena... al zen nire anaia??? Eta ni bere zain futboleko jolastu ahal izateko, berarekin lasterketetan nor gehiagoka ibiltzeko, JOLASTU ahal izateko. Eta negarrez hasi nintzen: nik ez nuen anai hori nahi, beste bat nahi nuen... ez beste gauza hura. Izugarrizko kasketa hartu nuen eta saminez beteriko malkoen artean isolatu nuen neure burua eta haurra, nire anaia, ez nuen ikusi ere egin nahi.

Begiek isuritako malkoek, beraien bizitza luzatu nahian edo, masail, ezpain eta kokotza laztanduz, poliki-poliki egiten zuten bidaia eta..... JOLASTU ahal zuen anaia faltan somatzen nuen.

Nere jostailu berria handitzen zihoan eran, nere bereganako ezinikusia murrizten zihoala ohartu nintzen.

Gogoan dut larunbata zela, egun hartan ez bait nuen ikastolara joan beharrik izan eta etxean geratu nintzen, anaia zaintzen; aita, aste osoa negozio bidaia batean igaro ondoren, goiz hartan itzuliko bait zen eta ama goizean goiz irten bait zen etxetik bere bila joateko. Beraz, ni geratu nintzen etxe zaindari.

Sirena hots antzeko musika ernegarriak hautsi zuen nere logurea. Haurraren negar oihuak zirela konturatu bezain laster, bapatean eta salto batez, ohetik altxatu eta etxeko zapatilak jazten denborarik ere galdu gabe, korrika abiatu nintzen anaitxoaren sehaska aurkitzen zen gelara. Argia biztu eta sehaskako barren artetik nere eskua sartuz berea hartu nuen. «IRATZARGAILU baten antzera ukitzearekin bat isildu da musikatxoa» —pentsatu nuen eta «Zer duzu maitea, goseak al zaude?» —esan nion amaren hitzak imitatuz. Bai, nere buruaz harro aurkitzen nintzen;

etxean ni bakarrik, pertsona nagusiagorik gabe, geratzen nintzen lehenengo aldia zen eta horrek garrantzitsu sentiarazten ninduen. Sukaldetik aulki bat hartu eta sehaska ondoan jarri ondoren, bertara igo nintzen. «Zeinen pottoloa zauden» —esan nion, besoetan hartzen ahalegintzen nintzen era berean. «Ezin izango zaitut hemendik atera». Bai, azkenean ahal nuen indar guztiekin besoetatik tira egin eta lortu nuen haurra sehaskatik ateratzea, baina biok lurrean bukatu genuen. Zorionez, ez genuen minik hartu eta nire lanean jarraitu nuen. Berriz ere besoetan hartu eta... buuuuuuu... apuuuuuuu... apuuuuuuu... pitxirripitxitxi... txipirripitin... eta horrelako txorakeriak egiten hasi nintzen, aitak egin ohi zuenaren antzera. Honela jardun nuen zenbait minutuz, baina JOKU hark azkenean aspertu egin gintuen eta bere barre algarak negar bilakatu ziren. Negar eta negar eta ezin isilarazi. Orduan, lehengusinarekin PAN-PINA etorri zitzaidan burura eta arropa kendu eta buelta eman nion bizkarrean kaxatxoren bat izango zuelakoan, baina ez nuen horrelakorik aurkitu, kaka usain izugarria zelarik topatu nuen bakarra. «Ah! Hori al da?! Ziurraski bainatzeko gogoia izango duzu, ez da?— esan eta amak goizero bainatu ohi zuela gogoratu nuen. Temperatura egokian zegoen urez bainuontzia bete eta nire «panpinatxoa» dagoeneko biluzirik nuelarik, uretara sartu nuen. Hain gorputz txikiarentzat hark bainera baino igerilekua gehiago zirudien. Esku batekin haurrari eutsi eta bestean esponja nuelarik, anaitxoa garbi-garbi egiten ari nintzelarik izugarri ongi pasatzen ari ginen; berak batean txanpu botila hartu, bestean jaboia, hurrengoan... ezin hobeto pasatzen ari bait zen eta niri ere, goitik-behera bustita egon arren, izugarri gustatzen zitzaidan ordurarte ezezagun zitzaidan joku berri hura. Plisti-plasta, poz-pozik ari ginelarik, txirrina entzun nuen. —Ah! aita eta ama izango dira.— eta korrika joan nintzen atea irekitzera. Atea, ordea, giltzarekin itxita ze-

goen eta ezin nuen ireki. Zer egin nezakeen? Triiiii!!! berriz ere. Ah! ez zen ateko txirrina. Behetik, interfonotik deitzen ari ziren. —Bai, nor da??? Nor da???... ez nuen erantzunik jaso, ordurako giltzarekin ireki eta sartuak izango ziren. Berriz ere bainu gelara bueltatzea erabaki nuen, aitatzok eta amatxok anaia zein ongi zaintzen nuen ikus zezaten... BAINA... urak orain ez zuen plisti-plastarik egiten, ez zuen plastadarik jasaten, ez zuen olaturik sortzen... eta ur gainean zeuden esponja, pote e.a.-en artean aingerutxo txiki bat ageri zen...— Kaixo maiteak, zer mod...

—...

Irribarrearen ondorioz bi marra fin bihurtu ziren amaren bi begitxoak, amen batean, bi plateren antza hartzeraino zabaldu zitzaizkion.

Bildurturik, bere lekutik atera behar zutela ziruditen begiek ikusten zutena egia ote zenaren beldurrez, ama uretara inguratu eta bertan zegoen «aingerutxoa» hartu zuen besoetan... Bitartean, aitak amaren espresioak kopiatzen zituen itzal mugiezina zirudien.

Busti-busti eginda zegoen aingeru itxurako haurtxoak, erosi berria zuen soinekoa blai eginda utzi arren, amak ez zuen bere besoetatik askatzen. Eta azkenean, bere begiek ikusten zutena guztiz sinistu zuenean... Aaaaaaaaaa!!!— garrasi egin zuen amak. «Zer egin duzu!!!»— garrasi egin zidaten. Ez nekien zer esan.

—Zergatik ez da mugitzen? Puskatu egin al da?...— galdetu nuen.


—Zuk, zuk hil duzu...— esan zidan amak gorrotoz beterik.

—Lasai ama, erosiko dugu berria, bale? Parisera dei egin eta berria bidaltzeko esango diegu, ongi da?! Nik ere badut eltzetxuan diru piska bat eta...

—Monstruo bat, monstruo bat zara; beti esan izan dut bihotzik ez duzula eta berekoi hutsa zarela; zu jeloskor zeunden, inbidia zenion zure anaiari eta horregatik hil duzu...— ez nuen ezer ere ulertzen, kasketa hartu duen haur bat bezala ari zitzaidan— ...infernura joango zara eta inork ez zaitu maitatuko eta latigu lodiekin joko zaituzte eta...—malkoz beteriko gorrotoz isurtzen zizkidan hitzak amak, eta lurrera bota eta ostikoka hasi zitzaidan. Aitak ama besotik hartu eta bainugelatik irten ziren. Nik ez nuen ezer ere ulertzen, inoiz ez nituen gurasoak modu hartan ikusi; txinatar lore-ontzia apurtu nuenean ere ez ziren oraingoan haserretu zirenaren laurdenera iritsi. Eta ni, ezer ere ez ulertu arren, oso samindurik aurkitzen nintzen eta negarrez hasi nintzen; baina nire malkoek ez zuten inoiz ere kontsolamendurik jaso. Eta goiz batean, zarata ernegarri batek esnatu ninduenean... irteerarik gabeko mangak ziztuzten jertseak jantzi eta txorakeriatan eta garraisika ibiltzea atsegin zitzaien jendea zegoen etxe txuri batera eramana izan nintzela ohartu nintzen... eta ez nituen inoiz ere berriz gurasoak ikusi. Eta...

Begiek isuritako malkoek, beraien bizitza luzatu nahian edo, masail, ezpain eta kokotza laztanduz, poliki-poliki egiten zuten bidaia eta une hartan, leihotik begira nengoelarik, handik begiztatzen nituen haurrak bezala jolastu ahal zuen anaia faltan somatzen nuen...

...BAINA... urak orain ez zuen plisti-plastarik egiten, ez zuen plastadarik jasaten, ez zuen olaturik sortzen... eta... ur gainean zeuden esponja, pote e.a.-en artean «aingerutxo» txiki bat ageri zen...



Zu ez zaudenean

Maidor Jauregizuria Lopez
Sto. Tomas Lizeoa
DONOSTIA

... zu ez zaudenean bakarrik sentitzen naiz ni. Euria entzuten dut. Dagoeneko lo egon beharko nintzateke. Bihar botak jantziko ditut; euria egiten duenean zapatekin beti irrist egiten bait dut kaletik. Argia piztu dut, goizeko laurak dira. Sukaldera heldu naizenean botilatik edan dut ura, amak ikusiko banindu asko haserretuko litzateke, ez zaio batere gustatzen edalontzirik gabe ura edaterik. Ez da Coca-Colarik gelditzen, berriro ere Asierrek nere Coca-Cola edan du! Hurrengoan neretzako bakarrik erosiko dut, antzarrak perratzerara joan dadila! Anaiak...!

Ohera itzuli naiz baina ezinezkoa zait zurekin ez gogoratzea; ahaleginak egiten ditut zugarik ez pentsatzeko. Cassete bat ipini dut... «... you are my blood, now I can't live without you, don't pull away, I can go no place without you...» Asko atsegin dut cassette hau, ea noiz ematen dizkidan Mirenek abestien letrak. Frantsesa ingelesa baino askoz hobe ulertu eta hitzegiten dut; ez dakit zergatik sartu ote naizen ingelesa ikasteko akademia batean, orain ez didate utziko Parisa joaten. Zuk oso ongi zenekien ingelesez; zuk ingeles abesti erromantikoak itzultzen zenizkidan; nik, berriz, zuri frantsesak. Oraindik gogoratzen dut lehen aldiz hitzegin genuen eguna; erosi berria zenuen disko hura uzteko eskatu nizun, nolako aurpegia jarri zenidan!

—Maddi! Mesedez kendu musika hori! Ba al dakizu ze ordu den?

Badakit arrazoia duela, oso berandu da, baina egunero berdina esaten dit, beti nere atzetik musika baxuago jar dezadan. Argia piztu dut berriro, logelaren paretei so nago, nere aurrean dut zuk oparitutako posterra, gogoratzen duzu? Saxofoia jotzen ari den mutil beltzarena. Jadanik urtarrilaren 16a da eta oraindik ez dut jarri urtekari berririk. Goizeko 5,30ak. Ez dut uste bihar klasera joango naizenik; lorik egiten ez dudan bigarren eguna da, guztiz etsita sentitzen naiz, nekaturik, amak ulertuko du.

Oheburukoa blai egina dago, malkoekin busti da. Zu ez zaudenean bakarrik sentitzen naiz ni; beste gauza asko sentitzen ditut, baina ezin dizkizut adierazi, ez bait dakit nola... zoratuko al naiz? Zurekin hitzegiten dihardut gau osoa eta zu ez zaude hemen. Baina ez dut beste inorekin hitzegiteko gogorik; jendea ikusten dudanean erabat mututu egiten naiz. Amak eta aitak tristuraz beteriko begiekin begiratzen naute. Gaindituko ote dut igarotzen ari naizen momentu hau?

Begiak gorri-gorri ditut. Bihar eguzkitarako betaurrekoak jantziko ditut, galtza beltzak, beltza jertsea, beltzak zapatak eta beltza berokia. Elizako lehenengo eserlekuan eseriko naiz, bere gurasoen ondoan; ezagutzen ditut bere gurasoak, bere etxean egon nintzen bazkaltzen bitan. Jada ez naiz arduratzen malkoak lehortzen. Balkoira atera naiz, egunsentiko haize hotz eta hezeak ene aurpegiaren espresioa gogortu egiten du, behera begiratzen dut, 10. pisuan nago... etxe barrura bueltatzen naiz.

Zergatik? Zergatik? Zertarako nahi zenuen Vespa bat? Ezin al zinen univertsitatera autobusez edo oinez joan? Hogei urte besterik ez, alajaina! Zure irrifarre alaia asfal-

toaren kontra suntsitu zen. Badakit ez zela zure errua izan, badaki Burgosko auto horrek ez zuela ondo ezagutzen hiria, baina...


Azkenean zure hiletara joateko ordua heldu da. Jantzi eta etxetik irten naiz. Amak begirada arduratsua bota dit. Automata bat bezala ibiltzen naiz

Orain dela bi hilabete ehortzi zintuzten; hemen nago ni neguko egun eguzkitsu honetan hilerrian, lorak ekarri dizkizut, larrosak dira. Bata gorria, txuria bestea; gorria, odola, pasioa, sentimenduak... txuria, bakea, garbitasuna, lasaitasuna...

Zu ez zaudenean bakarrik sentitzen naiz ni.

PROSA. B maila

B.B.B.ko 1. eta 2. kurtsoa,
L.H.ko 1. gradua eta
I.E.E.ko 1. zikloa



Beharrezkoa

Leire Sarobe Txopeitia
Sto. Tomas Lizeoa
DONOSTIA

Ez, berriro ez! Jadanik aspaldidanik ez dut horrelako ametsgaiztorik izan eta ametsaren xomorrotxoak nere ondotik alde egin zuela uste nuenean, nere buruko toki ilun eta ezezagun batean izkutatu da berriro ere eta laster gauak iratzarririk eta negarretan pasako ote dituden nago, aurpegi berri ezezagun bat ikusiaz. Gaztea, alaia, baina berehala aldatuko den aurpegia.

Ez dut horretan pentsatu nahi, baina mutil aurpegi irribartsua behin eta berriro agertzen zait begien aurrean gosaltzen ari naizela. Eskuz urrutiratu nahi izan dut. «Alde hemendik» oihukatu diot. Nahigabe jertsearekin jo dut esnez betetako katilua eta goiz honetako bakea hautsiz erori da lurrera. Zaratotsaren eraginez ama korrika sartu da sukaldean, eta aurpegi ilunez begiratu ditu esnetan igerian dabiltzan kristalezko milaka eta milaka zatiak.

—Zer daukan, neska, mamuren bat ikusi al dun ala?

«Bai» erantzuteko zorian egon naiz, baina hobeto pentsatu eta edalontzi puskatuaren zatiak jasotzen hasi naiz astiro-astiro. Bapatean mutil ezezagunaren aurpegia beira zati batean isladatzen ikusi dut, eta buruari bira eman diot harriduraz. Nere anaia gaztea da, Garikoitz. Ez, ezin dai-

teke izan, baina... ametsetan ikusi dudan aurpegia berea bada? Ez. Mutil ezezaguna zaharragoa da, hamazazpi bat urte izango ditu, eta Garik —horrela deitzen diogu Garikoi-tz luzeegia gertatzen bait da—, hamabi urte ditu. Hasperen sakon bat egin dut Jainkoari eskerrak emanaz.

—Zer, amodio arazoak edo? —itaundu dit irribarre handi batez nere zizpurua entzutean.

Jakingo bazenu, Gari, nere barnean daukadan estuasuna. Ez, baina ez dakizu, ez bait nion inori orain bizpahiru urte gertatutakoaren berri eman, eta ez dakizki inork garai hartan pasa nituen larrialdiak.

Egia esanda, pertsona bakar bati eman nion aditzera nere ametsgaiztoetan ikusten nuena, eta berak, nere kontura algara batzu egin ondoren, txorotzat hartu ninduen. Orain ez dago mundu honetan nere ametsen berri duen inor, ziurraski lehenengoak jaramonik egin ez zidalako. Agian, kasu eginez gero, oraindik bizirik egongo zatekeen. Pertsona hura, orain bizpahiru urte nere ametsetan agertzen zena zen.

Eta berriro datoz neregana, ni erotu nahian edo, amets horiek, hobeto esanda ametsgaiztoak, mutil horren patua nere eskutan balego bezala. Baina nik ezin dut mutilaren sinua aldatu, bakoitzarena jaio denetik idatzia bait dago, eta gainera, lehenengoz saiatu nintzenean ez nuen ezer lortu.

Berriz saiatu behar al dut nere ametsetan agertzen denari oharterazten? Edota beste norbaiti eman behar nioke aditzera nere sufrimenduen berri? Galdera hauek behin eta berriro etortzen zaizkit burura ikastolarako bidean doan autobuseko leihotik begira ari naizela. Mainer etengabe ari da hizketan, eta nik ez diot inongo kasorik egiten. Badirudi

ez dela nere buruan gertatzen ari denaz konturatzen. Ez da bera bakarrik konturatu ez dena, autobuseko denek jarraitzen dute normal, ezer gertatuko ez balitz bezala. Noski, beraientzat ez da egun arrunt bat besterik, urteak soberan dituen egun arruntetako bat.

Aurpegi hori... bai! Mutil ezezagunaren ezaugarri berdinak ditu: ile beltza, begi berde bananduak, ezpain finak... Aurpegia leihora itsasi dut, harriduraren harriduraz.

—Gelditu, gelditu! —oihukatu diot txoferrari zutik jartzen naizen bitartean.

Baina txoferrak, gidari on baten antzera, ez dio kasorik egin neskatxa txotxola baten erreguari. Atzeranzko ispilotik begiratu dit kopetilun. Eskolaume guztiak neri begira ari direla sumatu dut. Berdin zait! Autobus zaharreko leihoa ireki dut eta oihuka hasi naiz.

—Aizu, zu, jertse gorria daramazuna! Eeeeeeeeeeeeeeeeeee!

Urrutiei dago dagoeneko nere oihuak entzuteko.

* * *

Musika eta argi gorri-urdinek burua nahasten dute dantzatzen ari zaren bitartean. Sentsazio arraroa da, mundu guztiak zure inguruan biratuko balu bezala. Momentu horretara iristean hoberena Koka-Kola hotz bat hartu eta lasai-lasai eseritzea da.

—Eseriko al gara? —proposatu dut.

Ezin dut gehiago, nere burua burrunbaka dabil. Gogoeta guztiak nere inguruan biltzen dira inongo egokita-

sunik gabe. Nere aholkua jarraituz eserleku batzu eskuratu ditugu eta bertan eseri gara, Itziar edarien bila doan bitartean.

—Koka-Kolak, ez?

Beste guztiek «bai» erantzuten dioten bitartean nere eztarrietik ez da hotsik atera, ahoa irekia izan arren. Esuztearengatik daukat ahoa irekia: gure taldetik bost bat metrotara, alai hitzeginaz eta irribartsu, arrisku bizian dagoen norbait ikusi dut: mutil ezezaguna. Eskerrak eserita nagoela, bestela lurrera eroriko nintzatekeen.

—Aizu, Mayi, itxi ezazu ahoa, bestela euli bat sartuko zaizu eta!

—Gaizki zaude ala? Benetan zurbil zaude, neska!

Beraiek ez dute ezer ulertzen, inozoak! Jakingo bazenute...

—Ezagutzen al du norbaitek hor dagoen jertsei gorridun mutila, beltzarana? —galdetu diet ahal dudan bezala nee izua ezkutatzeko plantak eginaz.

—Aaaaaaaaaa! Hori da, e? Eta ni gaixo zeundelakoan...

Jakingo bazenu nere gaisotasuna ez zenuke barrerik egingo. Baina gaisotasun sendagaitza da.

—Nik ezagutzen dut. Nere etxebizitzan bizi da, bi pisu gorago. Ekaitz du izena eta oso atsegina da. Aurkeztuko al zaituztet?

Piska bat pentsatu dut. Ausartuko al naiz egia esaten? Kasu horretan hoberena bera ezagutzea da. Baina, gero, zerbait gertatzen bazaio... Nere buruak gora eta behera egin du. Dena ongi aterako dela espero dut. Adoretzu izan

zaitez! Edurnek keinu bat egin dio eta badator honantz. Nere hankak dardarka daude.

—Trankil, Mayi, ez zaitu jango eta!

Betiko txantxa txotxoloak. Beste edozein mutil izango balitz... Baina ez, bera da. Nere ametsetan agertzen den berbera. Nola esango diot? Ez, ez, ez. Hoberena bera ez ezagutzea da. Baina dagoeneko beranduegi da atzera egiteko, Edurne aurkezpenak egiten hasi bait da.

—Mayi, hau Ekaitz da; Ekaitz, Mayi —esan du irribarre maltzurti batez.

Aurkezpen guztietako bi musuak. Bere masail beroa nerearen gainean somatu dut. Baina bere ezpainak hotzak daude, hilotz batenak bezala. Ez, nere irudimena da. Oraingoz bizirik dago, baina geroago... Nola izan naiteke horrelakoa? Mutil bat aurkeztu berri didate eta bere heriotz goiztiarrean pentsatzen ari naiz. Baina ezin bestekoa da, lehenago edo beranduago gertatu behar du. Ekaitzek irribarre sakon bat dauka aurpegian: nik, ordea, keinu arraro bat agertzen dut. Ai! Nor izan ote da zapaldu nauena? Dorleta, nola ez bada! Keinuka ari zait Ekaitzen bizkarretik. «Hitzegin, hitzegin» esan nahi duela uste dut. Egia esanda ez diet jaramonik egiten Ekaitzen hitzei, bere aurpegia arakatzen ari naiz. Bera hizketan ari da barra-barra, eta ni, katuaren aurrean dagoen xagutxoa bezala, isil-isilik nago.

—Aizu, Ekaitz, goazen kanpora piska batean, bai? Nere lehenengo hitzak.

—Noski, nahi duzun bezala.

Aterantz abiatu gara elkarrekin. Nere bihotzaren tau-padak ia eztarrian senti ditzaket. Ausartuko al naiz? Dan-

tzalekutik irten gara. Zelai ageri batean dago kokaturik eta zenbait tokitan bikotez beteriko eserlekuak daude. Libre dagoen batean eseri gara. Arnasa sakonki hartu dut eta...

—Begira, Ekaitz, orain dela oso gutxi ezagutzen zaitut, baina istorio bat kontatu behar dizut —esan diot ahots ahulez.

—Aurrera ba!

—Ederki. Orain bizpahiru urte, ametsgaizto batzuk izan nituen. Bertan gizon bat agertzen zen. Gizon hau, nere ametsetan, behin eta berriro hilik agertzen zen era desberdinetan. Unetxo bat itxaron dut bere erreakzioa ikusteko asmoz. Ez du txintik ere esan. Pertsona hura kasualitatez ezagutu eta nere ametsgaiztoen berri eman nion. Ez zidan jaramonik egin, eta handik egun batera tiro batez hilik agertu zen. Atzo eta orain dela egun batzuk ere, ametsgaizto bat izan nuen. Orain bizpahiru urte izan nuenaren antzekoa zen eta gauza bakar batean zen ezberdina: hilik ageri zen pertsona zu zinen.

—Ja, ja, ja, ja, ja, ja! Istorio interesgarria! Ja, ja, ja, ja, ja...

Lehertzeko zorian dagoela dirudi. Bere algarak txoko guztietan entzun direla ziur nago. Zoro baten antza dauka. Ezin dut jasan! Korrika joan naiz bere ondotik. Bere algarak bide guztian jarraitu naute, negar malko batzuk nere masail gorritutik irrist egiten duten bitartean. Erotuta egon behar horrelako mutil batengatik negar egiteko. Baina ikusiko du.

* * *

Oraindik atzoko eskena gogoan daukat. Saiatu nintzen, baina... Katiluko esnea begiratzen ari naiz. Egunkaria

mahai ganean dago, edalontziaren ondoan. Gelditzen zaidan adore pittinarekin hartu dut. Eskelak azken-aurreko orrian egon ohi dira. Orri hori ireki eta...

Ur tanta hotzek esnarazi naute. Amaren aurpegi zirriborrotsua ikusi dut neri begira.

—Zer daukazu, Mayi?

—Ez da ezer, ama, bero handia egiten du eta...

Etzanda nagoen sofatik altxa eta nere gelara abiatu naiz egunkaria oraindik eskutan dudala, ama egongelan kezkatu geratu den bitartean. Bere argazkia eta hildamua ageri-agerian daude:

EKAITZ ARRIZABALETAKO MENDIA

Atzo hil zen Donostian, 17 urte zituelarik, Elizakoak eta...

Beraz hil da. Ziur nengoen horrela gertatu behar zuela. Egin dut. Baina zergatik nik eta ez beste edonork? Norbaitek ateko txirrina jo du. Amak atea ireki eta une batez norbaitekin hitzegiten geratu da. Nere gelara datozen pauso hotsak entzun ditut.

—Mayi, zurekin hitzegin nahi duten bi gizon daude egongelan —esan dit amak atea ireki bezain laster.

Amari jarraitu diot barnebidetan zehar egongelako ateraino iritsi arte. Paretik kendu da eta barrura sartu naiz. Bertan oso dotore jantzitako bi gizon daude ni noiz eseriko naizen zain. Beren aurrean eseri naiz eta biboteduna, gazteena, itauntzen hasi zait.

—Zu atzo Ekaitz Arrizabaletarekin egon zinen, ezta?

Amak zutik jarraitzen du ate ondoan. Zeharka begiratu diot eta baietz erantzun dut.


—Gaur goizeko bostak aldera hilik aurkitu dute ka-leaho ilun batean. Hamar sastada baino gehiago zituen gorputzean. Hilotzaren ondoan hau aurkitu dugu.

Amerikanako poltsikotik kartera bat atera du. Nerea da. Zutik jarri naiz. Nere mugimendua ikustean bi gizonak eserlekutik altxa dira segituan eta neregana hurbildu dira. Ihes egingo dudala uste al dute? Ez. Harrapatu egin naute eta, ziurraski, kanpoan polizia gehiago daude. Ez du pena merezi ihe egiteak. Zoroetxe batean sartuko naute ero nagoelakoan, eta hemendik urte batzutara aterako naiz berriro ere, nere iharduera honekin jarraitzeko. Bi gizonak, bakoitzak beso batetik, heldu naute.

—Ez daukagu esku-burdinen beharrik, ezta? —galdetu dit batek irribarre errukarriz.

Ez naiz erantzuten nekatu. Kaleko aterantz abiatu gara. Amaren begietatik negar malko batzuk ihes egin dute, eta amak eskuaz lehortu ditu. Atsekabetua dirudi. Baina ziur nago lehenengo pertsona hil nuenean bera nolabait ohartu zela; agian, lapurtu nuen pistola nere gelako gal-tzerdi kajoian ikusi zuen edo beste edozergatik. Ez dakit zergatik ez zuen ezer esan orduan. Ziurraski aldatuko nintzenaren uste makala zuen. Baina ezin dut. Beraiek nitaz barre egin zuten eta nik ez nuen beste irtenbiderik izan. Nitaz barre!

Auzokideak leihoetatik kuxkuxean ari dira beti bezala. Laster hasiko dira auzoan zehar mota guztietako zurrumuruak. Kotxe batean sartu naute, bi gizonen artean, eta etxetik urruntzen ari gara. Atzeraka begiratu dut eta ama atean ikusi dut. Negarrez ari da. Lasai, ama, itzuliko naiz eta.



Emagalduek deitzen gaituzten horiei

Nagore Kano Ormazabal
Xabier Zubiri B.I.
DONOSTIA

*«Ni ez naiz lore bat
ez naiz lorea bezala zabaltzen
ez eta lorea bezala hertsitzen
nere usainak ez du lore artean
parekorik
eta ez naiz esku artean zimeltzen...»*

AMAIA LASA

Eulantza. Leihora hurbildu eta kantoeitako giro hezeruntz zuzendu ditut ene begiak. Zakar poltsetan miatzen ari den zakur batez gain, ez da inor ageri. Oilasko hondakin batzu harrapatu eta besterik ezean kalean barrena jo du. Hotz dago, eta beira lohitutik eskuak urrundu behar izan ditut. Kristaletik behera doazen ur ttanttei so egin diet; lotsati, malko bat agertu da eta begi zirrikitutik ihesi, malsailean, maldan behera jausi da. Berriz ere oroitzapen goxoak datozkit gogora.

—Zelako begiak hireak!

Eskutik leunki hartzen ninduela konturatu ezinik, gure ezpaineak egin zuten topo.

Nola azaldu urdailetik gora behin eta berriz zebilki-dana? Hain zen goxo eta ernagarri!

Maitasuna ote?

Hamairu urte nituela, bizitza zoro baten lilurak ezagutzera eramán ninduen. Lehenengo aldia ahaztezina dela esan ohi da, dirudienegia diote.

Neure ametsetatik ihes egin nahian eseri naiz ohe er-tzean. Kotoizko braga finak eta amonak egindako jertse beixa jantzi ditut. Oraindik soinean darabilzkit zuk opa-ritutako abarketak, jadanik zuloz josiak. Kafe beroaren usaia zabaldu da etxean zehar; logelara itzuli naizenerako, bezeroak mesanotxe ganean sosik ez duela utzi eta alde-gina dela kontu hartu dut.

—Putasemea!

Leioha zabaldu eta kafetera jaurtiki diot buru gainera.

—Eta hi? Ez al haiz putatxo horietako bat hi ere?

Ziztu bizian aldegin du tximista bailitzan. Bakardadea da berriz ere, nire gorputz laztanduegiaren jaun eta jabe bakarra. Bezeroen presentziak sortarazten duen bakardade latza; isiltasunaren oihu garratza.

—Aizan Ortzi! Nirekin bueltatxo bat eman nahi al dun?

Ahoak mihia giltzpetu izan balu bezala, hitzak ez ziren gai berez irtetzeko eta nire bihotzaren bultzadatxo bat be-harrezkoa izan zuten; bere begirada umelduaren lasaigarri izan zitzaizkiolarik. Biziki maite nuen mutilari nola esan ezetz? Baina, oraindik maite al zaitut?

Berriz ere zure oroitzapenek inguratu naute; egoera lerdo hau gainditu behar dut. Hamabiak jo dute hormako

erloju zaharrean, dandaka bakoitzak nire barne hutsean oihartzun sakonak sortu dituelarik.

Dutxara jo dut, gertaera hau oroimen guztiek lurpera dezaten nahian. Urak nire masailak zipriztintzen ditu eta goiztirietako ihintzaren antzera, nire bularrak hozkirri berezi batek esnatu ditu.

—Ama, zergatik ez dizut zureak bezalakoak?

—Egunen batean nik baino politagoak izango dituzu; baina Ortzi, oraindik gaztetxoa zara gauza horietan pentsatzen iharduteko eta...

Amaren hitzek bihotza erditik printzatzea lortzen dute. Ama, non zaude?

Nire malkoak urarekin nahastu dira. Xukaderaz lehortu dut gorputz osoa. Ispilua lurrinak estali du eta eskua gaineratik iragan dudanean, nire aurpegia agertu da bestaldean; biziaz beraz eta bizitzeaz nekatu eta nazkatu den gazte baten aurpegia. Sekulako betazpiek, hainbeste gaue-tan zehar lanean aritzearen ondorio garbiak, nire itxura aldarazten dute.

Arratserarte, nire izardiaz erositako etxea txukuntzen jaurdun naiz. Lasaitzeko asmoz, egongelako sofa loredu-nean etzan naiz. Ahots lagun bat entzuteko asmotan, telefono txuria deseskegi eta Nekaneren zenbakia markatu dut. Nekaneren lekuan, hain ezaguna zaidan gizonezkoen garraztasuna azaldu da.

—Bai? Esan!

Isilunea.

—Esan!!! Nor arraio haiz?

Nekanak, lanean ari den bitartean deitzea gogoko ez duela gogoratu dudan une berean eskegi dut telefonoa. Jantzi eta norabaitera aldegiteko gogo biziz irten naiz etxeko ataritik.

—Ama, maindireak zikindu ditut.

—Zerez?

—Ez dakit, odolaren antza badu, baina ez dut inon zauririk aurkitzen.

—Ortzi, emakumea zara jada!

Gorroto izan nuen esaldi hura eta gogora datorkidan bakoitzean, oraindik ere gorrotoa sortarazten du nire barnean.

Aldapa behera jo dut eta bihurgunea igaro ondoren, itsasoa agertu da ene begien aurrean.

—Begira Ortzi, itsasoa; egun euritsuetako itsasoak hire begietako kolorea ekartzen zidan gogora. Uhinek, aldiz, hire besarkadetan murgiltzen ninaute.

Hitz ederrak esatearekin nahikoa zela uste zuen; gixarajoa! Baina kokoteraino nengoen hainbeste lerdekeria entzunda eta bizimodu berriari benetako hasiera eman nahian, han abiatu nintzen, nire bizitzako protagonistaren bila. Azkenik, inoiz etorri behar ez nuen lekua ezagutu eta bertan gelditu nintzen. Hau nazka!

—Diruz larri nebilek eta ez litzaidakek axolako hiretzat lan egitea.


—Gorputz eder horrekin aise zoratuko ditun inguruko gizonak.

Gizaseme hura ezagutu nuen taberna berberera sartu naiz. Leporaino dago jendez, ohi denez. Larruzko gona motza keinu arin batez piska bat igotzea lortu dut, nire zango «ederrak» norbaitek ikus ditzan. Gerritik maitekiro hartu naute garagardoa eskatu dudanean. «Eguneroko lana hasia dago» pentsatu dut nirekiko, baina basoa nire eztarri lehorreruntz jaso orduko, zorabiatu eta erori egin naiz lurrrera.

Ez naiz ordu ezkerro gertatutakoaz oroitzen, eta dagoeneko denboraren konortea galdua dut. Hemengo erizainak zakarregiak dira galderetan hasteko eta era bitxi batez gelditzen zaizkit begira; beraz, isiltzea izango da egokiena.

Ilunabarrean, bata txuriko gizona hurbildu zait, odolaren azterketaren ondorioak atseginak ez direla esanez. Inondik espero ez nuen berria ekarri du analisiarekin batera: azaldu berria den eri baten eramailea naizela, SIDA delakoaren morroia naizela hain zuzen. Alaitzekoa dirudi esaldi honek; lehenengoetarikoa, hau da egon ezina, hau!

Ez da denbora asko pasa berria jakin nuenetik, edo agian bai, maldan behera bezala joan bait da nire bizitza. Orain, hemen, gurpilezko aulki honetan nago eta betirako, hutsean, ezerezean beste esku batzuri esker geratzen zaizkidan denboraren apurrak esperantzari ohostuz.



Goizeko euri artean

Yolanda Zorita Arratibel
Xabier Zubiri B.I.
DONOSTIA

*Goizeko euri artian
aterkinarik gabe
eskuak sakelean
pena bat bihotzean.
Etxetik urruti nago
kaleetan bakarrik
goizeko euri artian
kitarra bakarrekin...*

Eguzkiarekin batera esnatu naiz, zoru biluziaren hotza hezurretaraino sartzen zitzaidalarik. Gogo gutxiz, gosez akatzen, esku bat nire kitarran sostengatuz eta bestea zementuzko paretaren zulo batean sartuz, altxatu naiz.

Nire barruak soinu ikaragarria atera du, eta ondotik pasatzen ari den neskatoak lotsaz begiratu nau. Nik irri-parre bat eskeini diot eta berak aurrera begiratzuz pausua arindu du. Ez da harritzekoa, nire arropak ez dira zetazkoak eta asteetako bizarrak estaltzen du nire aurpegi zikina.

Dendak bere pertsianak igotzen hasi dira. Imintzioak eta nire ingeles kaxkarra tartekatuz, mostradore atzean dagoen andreari ogia eskatu diot. Honek zati bat luzatu dit. Baina eskua sakelean sartu dudanean hau hutsik zegoen. Barruraino sartu dut, atzo gauean zer edo zer bazegoeneko

ziurtasunez. Orduan aurkitu dut arrazoia, nire eskua izterra ikutzeraino iritsi denean.

Bestalde emakumeak, oradintzeko asmorik ez nuela ikusirik, bere ogia hartu du eta bizkarra eman dit, ingelesengan ohizkoa den hoztasunaz.

Berriz ere euria hasi du eta kaleak bapatean hustu dira. Oraindik bertan dabilozan lauak azkar mugitzen dira euriak desegingo dituen beldurrez.

Azkenean badirudi nirekin etengabe doan hots honi atsedean bat emango diodala. Espaloiaren bestaldean zikin antza duen jatetxe txinatar horietako baten erakustokian plater garbitzaile bat eskatzen dute. Ura hezurretaraino sartuta edukiko dut osterara. Baina azkenean jan ahal izango dut eta zorte piska batekin izango dut non lo egin ere. Ez da luzerako izango hala ere.

Hango jabea den gizon lodi bati nire bizitzari buruz hamaika datu eman ondoren, iadanik lana nire esku zegoenean, ni baino bi bat urte gazteagoa izango den ingeles bat sartu da. Kafesne batera gonbidatu nau gizon lodiak, beste gaztearekin hitzegiten zuen bitartean. Kafesnearen berotasuna gorputz guztitik sentitu dut, lehen aldiz whisky bat hartzen duzunean bezalaxe; baina horren kontra lehen baino gehiago nabaritu dut gosea.

Haiek hitzegiten ikusten nituen bitartean bihozkada bat izan dut, eta bihozkada ziurtasun bihurtu da biek irri maltzur bana igorri didatenean. Ez da izango arrotza naitzelako hartzen ez nauten lehenengo aldia. Eta hala ere han gelditu naiz, zahar haren aitzakia entzun zai:

—Barkatu, gazte, baina oraintxe jakin dut ene emaztearen lagun baten semea bla, bla... zer espero zitekeen? Eta horrela, berriz ere esku eta gogo hutsik atera naiz.

Eguzkia iadanik bere puntu gorenean dago eta besterik ezean kitarra hartu dut. Nire herriko kantak abestu ditut, hauek baitira nonbait zerbait zai daukadala gogorarazten didaten bakarrak. Jendeak gustokoak izan ditu eta ordu baten buruan utzi didatenarekin gaur mokadu bat jateko nahikoa izango dut.

Kale zikin batetako self-service txiki baten txoko ilunenean eserita, bi arrautza platerean. Argazki polita litzateke amari bidaltzeko. Momentu hauetan ezer ez naizela sentitzen dut eta nire buruari galdetzen diot zertarako naizen hemen. Zertarako kaleak garbitzen, baina edukiko al dut norbait han itxoiten, nola agertu amaren aurrean irten nintzen baino mixerableago. Zer gertatu da nire ametsekin, nire handinahikeriarekin. Euri zikinak eramanez dituztenak eta orain zai egotea besterik ez zait gelditzen, ezerezaren zai.

Bukatu bezain laster handik atera naiz, leku hark burutapen gehiegi ekartzen zizkidan, eta behar dudana ezertan ez pentsatzea da.

Nire galtzen atzeko poltsikoan eskua sartu dudanean telefono zenbaki bat aurkitu dut; produktorearen telefonoa. Topatu dudana kabina sano bakarretik zazpigarren aldikotz deitu diot.

—014779 Izar Gazteen Produktora, egunon!

—Hitzegin al dezaket —ez dut inoiz izen hau ikasiko— Gazeck jaunarekin?

—Noren partez?

—Nire izena? Etxezahar, Andoni Etxezahar? Lehenago ere deitu izan dut.

—Bai, gogoratzen dut. Sentitzen dut baina bera ez dago orain hemen.

—Ondo da. Beste egunen batean deituko dut.

—Agur.

Bai, deituko dut, berriz ere ahots garratz horrek nagusia ez dagoela esango dit. Beti berdin.

Eastender aldera jo dut, automatikoki, hango tabernak beste egun batez korritzera.

Garagardoa beroa dago eta bozgorailuak modan jarri den musika nazkagarria nire belarrira indarrez isurtzen du. Baina atearen ondoan dagoen emakume beltzaran, mehe eta txiki haren begiradak urduri jartzen nau. Laister ez bazait gerturatzen eztanda egingo dut.

Argi gutxi sartzen da iadanik gelako lehio txiki bakarretik, eta horrela gelak oraindik zabarragoa dirudi. Ohea txikia da eta bere gorputzaren beroa nire barneraino sartzen da. Lokuxka bat hartzeko begiak itxi ditudan bezain laster mugitzen hasi da. Gehiago nahi zuela pentsatu dut momentu batez baina ez da hori, hobe horrela izango balitz. Ezpain beroak belarrira gerturatu dizkit eta xurrunurru bat izan dena trumoi bat bezala somatu dut:

—Orain, alde egin behar duzu!

Ezin nuen sinistu berriz ere kale gorrian lo egin behar nuenik.

—Nire gizona etortzear dago.

—Ezkondua, nola ez!


Irtenbiderik gabe azkar jantzi eta laister atera naiz handik. Ez dut inorekin burrukan hasteko asmorik bost axola zaidan norbaitengatik.

Udaletxeak zaindutako belardietan eseri naiz, handik botako nauen poliziaren zai.

Eguzkia hiriaren eraikuntza altuenaren atzetik desgertuz doan heinean, propagandazko paper baten atzekaldean abesti bat idazteari ekin diot. Niretzat bakarrik izango dena, nire bihotz gihar eta hezurrek bakarrik gozatu ahal izango dutena:

*Goizeko euri artian...
Eta egun on batian
pozik ikusiko dut
iguzkia agertzen
goizeko euri artian.*

(Txomin Artola)



Heriotzaren oihua

Ainhoa Sansinenea Aizpurua
Sto. Tomas Lizeoa
DONOSTIA

Negu gogorra gertatzen ari zen 1839. urtekoa. Egunero-egunero elur malutak etengabe erortzen ziren hirietako kale bakartietara eta mendietako belardi bustietara. Jadanik hamaika gizon, emakume, haur eta beste, hil ziren hotzez, gosez eta gaisorik inoren laguntzarik lortu ez zutelako... dudarik gabe Inglaterrak ezagututako negurik gogorrenetariko bat.

Malen Inglaterrako erdigunean zegoen hiri garrantzitsu bat zen. Nahiz eta Londresekin ezin parekatu, hemen abokatu nahiz mediku oso ospetxuak zeuden eta Inglaterrako hiriburua baino askoz txikiagoa izatean, bizitzeko giro lasaiago bat zegoen. Malenek bazituen ikastolak, elizak, edozein liluratuko zuketen oihal dendak... baina hiri hartan ospe gehien merezi zuena Landeman izeneko unibertsitate prestua zen. Edozeinek han ikasi truke bere ama ere salduko zukeen. Han ikasiak ziren hiriko nahiz inguruetako gizon aberatsen semeak. Izan ere, han ikasitako batek bazuen zer esanik. Hango irakaslea zen Bedloe doktorea eta 61 urte izan arren bere jakinduriak eta lanerako zuen segurtasunak unibertsitateko irakaslerik ezagunena egiten zuten. Bere pentsakizun eta teoriak idatzi eta denengatik gorai puak jasotzen zituen. Gai askotan interesa-

turik zegoen, baina bere denbora gehien betetzen zuen arloa hipnotismoa zen. Guztiz afandua zegoen, bere ustez, «burumuinean daukagun baina erabiltzen ez dakigun jaungoikoaren dohaia»rekin. Hala ere, ez zuen ikasitakoa inoiz egiaztatu, ez zuen inor hipnotiko egoeran utzi nahiz eta horretarako gai izango zela denek jakin.

Etxetik ateratzea oso arriskutsua zen egun batean, unibertsitatean zegoen Bedloe jaunaren langelan atea jo zuten. Irakasleak inongo zalantzarik gabe atea ireki zuen eta tximista bezain azkar hiriko botikaria sartu zen. Hau, ilebeltz eta azal zuriko gizon oso garai eta mehea zen eta jakituri handiko gizona izan arren, zena baino gehiagotzat zeukan bere burua. Hala ere, bera baino gehiago zen jendearekin apaltasunez jokatzeko zuten. Eta mingaina trabatzen zitzaizolarik, Bedloe jaunari haxe esan zion:

—Jauna, zure azken boladetako ikaskizunak proban jartzeko garaia iritsi dela uste dut. Badakizu, hipnotizatzeke ahalmen bitxi hori.

—Baina norekin egingo nuke nik proba arriskutsu hori? —esan zion doktoreak.

—Ni zientziaren aurrerapenerako nere bizia arriskutan jartzeko prest eta harro nauzu, jauna.

—Baina konturatzen al zara agian inoiz esnatzeko gai izango ez zarela?

—Bai, eta ez zait inporta.

—Ez, sentitzen dut baina ni ez naiz hori egiteko gauza. Nere gainean pisu handia izango nuke eta errespon-
tsabilitate haundiegia izango litzateke nere bihotz zaharkituarentzat. Eskerrak ematen dizkizut emandako aukerarengatik, baina ezin dut.

Asko ihardun arren botikariak ez zuen bere nahia lortu eta doktoreak eritzia aldatuko balu bere botikara joango zelakoan gelditu ziren. Grant jauna aski ezagutzen zuen Bedloe doktoreak eta dudarik ez zuen saiakuntza hori bere ospe eta izen ona gorai patzeagatik egiteko prest zegoela. Bere harrotasunak mugarik ez zuen.

Gau osoan ibili zen bueltaka botikariaren ideia doktorearen buruan: Granten izena ospetsu egiteaz gain zientzia arloan benetako esanahia izango zuen esperimantu hark. Eta hurrengo goizean botikan agertu zen zientzilaria. Botikariak, hau ikusi orduko, bera bezain gizon aproposa hartzen azertu handia egin zuela esatean, bere harrotasunaren beste agerpen bat eman zuen. Doktoreak ziur zegoen galdetu zion eta, baietza jaso ondoren, biharamonean gelditu ziren proba egiteko.

Unibertsitateko doktorea nahiko beldurturik zegoen eta, nahiz eta beste kasutan baino urduriago egon, ez zuen bere betiko lasaitasun eta segurtasuna hautsi. Bere orduak bete zituzten liburuei azken begirada ematen ari zen bitartean iritsi zen hipnotismo egoeran eroriko zen botikaria. Hau, nahiko lasai zegoen, oso esku onetan zegoelakoan. Izan ere, doktorearekin fidatzerik ez bazegoen inor gutxik mereziko zuen norbaiten konfidantza. Botikaria irrikitan zegoen, ezin zuen segundu bat bera ere itxoin. Eta azkenik, Bedloe mahaitik altxa eta ohean etzateko agindu zion Grant jaunari.

Lasai-lasai geratu zen arte itxoin behar izan zuen doktoreak eta hitz goxoak tartekatuz eskuak aurpegitik pasa eta guk ulertuko ez genituzkeen gauza arraro ugari egin zizkion etzandako gizonari. Zenbait minutu pasa ondoren, gizonaren aurpegia guztiz aldatu zen: lehendik txuria bazen ere, orduan txuriagoa zen eta zenbait alderditan morea.

Ezpainak more kolorekoak ziren eta begiak guztiz deskantsatuak. Goiko betazala igotzean begi txuri bat besterik ez zen ikusten. Aurpegi horrek benetako ikara ematen zuen. Ez zuen inongo espresiorik eta horrek hilda zegoenaren itxura besterik ez zuen ematen. Baina ez zen bere arpegia bakarrik, pultsua ez zen ia nabaritzen eta besoak gogor-gogorak zeuden. Gizon hori benetan hiltzat jo zitekeen!

Doktoreak bazekien orduan zetorrela zatirik arrisku-tsuen eta ondo prestatu zen. Edozein akats eta gizon horren bizia agor zitekeen. Eskua aurpegitik pasa, zenbait hitz esan eta berriro ere Grant jauna zutik jarri zen:

—Lortu dugu! Lortu dugu! —esan zuen botikariak— hiri osoari esan beharreko gauza da! Bihar egunkarian agertuko gara eta inguru honetako gizonik ospetsuenak izango gara!

—Zer sentitu duzu? —esan zuen Bedloek besteak aurretik esandakoari batere kasorik egin gabe.

—Ezer ere ez. Zenbat denbora egon naiz hipnotizaturik?

—Ordu bete eskas. Zure aurpegia ikusi izan bazenu! benetako hildako bat zirudien!

—Ordu bete besterik ez?

—Gutxi iruditzen al zaizu?

—Zertxobait gehiago egongo nintzelakoan nengoen ba. Ez dakit, baina gau oso bat hipnotizaturik edukitzeko prest al zeundeke, jauna?

—Gau oso bat? Askotxo iruditzen zait, baina nahi baduzu hori egiteko prest nauzu, nahiz eta arriskutsu samarra iruditu.

—Ez da arazorik izango. Lortutakoan nahi hainbat luza daitekeela iruditzen zait. Orduan bai izango garela ospetsu! Dagoeneko ikusten ditut egunkarietan gu bion izenak! Noiz izango da hurrengo saioa? Neregatik gaur bertan izan daiteke —esan zuen harrotasunez botikariak.

—Ez, gaur oso nekaturik nago. Bihar etor zaitez berriro eta saiatuko gara. Agur!

Aurrekoan bezala doktoreak ez zuen itxoin beharrik izan. Botikaria gelditutako ordua baino lehen iritsi zen eta horretan bere ospetsu bihurtzeko grinak ikusten ziren. Bedloer beste aldian baino lasaiago egon arren nahiko nekaturik zegoen. Lehenbailehen hastea hobe zela pentsatu zuten eta botikaria berriro ere ohean etzan zen. Aurreko saiakuntzatik ikasita, lasai jarri eta begiak itxi zituen. Doktoari ez zitzaion lan handirik kostatu hipnotizatzea eta lehengo arpegi txuri-morea jarri zitzaion etzandako gizonari. Gaua aurrera zihoan eta doktorea ez zen gizonarengandik urrundu. Nola zegoen koaderno batean apuntatzen hasi zen, baina gero eta nekatuagoa sentitzen zen eta azkenik utzi egin nuen.

Bat batean bularrean min handi bat somatu zuen Bedloek eta, zutik mantentzen saiatzen zen bitartean, Grant jaunarengana abiatu zen esnatzeko asmotan... beranduegi zen. Ohearen hanketan hil zen bihotzekoak jota. Doktorea lurrean zegoen eta botikaria berriz, bere ospea gorai-patzearren hipnotizatua, lasai, ezer jakin gabe, doktoreak noiz esnatuko zain.

Egun pare bat pasa ziren eta inork ez zuen ez botikaria eta ez doktorea ikusi. Horregatik unibertsitatearen zuzendariaren aginduz Bedloeren langelara joan ziren. Atea irikitzean, lurrean zegoen doktoarearen gorpua eta ohean hip-

notizaturik zegoen botikaria ikusi zuten. Baina haiek, hura ikustean, bera ere hilik zegoela pentsatu zuten.

Atsekabe handia sortu zuen bi pertsona hauen heriotzak baina, zer esanik ez, jende gehiagok egin zuen negar doktore prestuarengatik botikari harroarengatik baino. Zertaz hil ziren jakin behar zen eta horregatik autopsia egileari eraman zizkioten gorpua. Lehenengo doktoreari egin zion eta argi eta garbi ikusi zuen honen heriotzaren arrazoia, baina botikariaren gorpua adi aztertzean, bizirik zegoela ikusi zuen. Zer nolako esamesak izan zituen gertakari honen! Orduan gertatutakoa errez jakin zen. Eskerrak autopsia egileak ez zuela gorpua ireki!

Geratzen zen bakarra Grant jauna esnatzea zen. Hiri hartako inork gehiago ez zuen hipnotizatzeke gaitasunik eta beraz, kanpoko doktoreei eskatu zieten laguntza. Londresetik makina bat mediku joan zen eta nahiz eta saio asko egin, ez zuen inork esnatzea lortu. Europatik ere, gertaeran interesatuak, mediku eta arlo horretan jakiturgia handiko gizonak joan ziren bere ahalmenak erakutsi nahian, baina inork ezin izan zuen esnatu. Denen ustez, gizon hori kontroletik kanpo zegoen eta ezin zen inolaz ere esnatu, bakarrik egingo zuela edo bestela azkenean hil egingo zela esaten zuten.


Urteak eta urteak igaro ziren botikaria esnatu gabe eta horrela zegoen bitartean ez zuen inolako aldaketarik jasan. Bitartean Ingalaterra osoko doktoreak Malen hiritik pasa ziren gizon haren gorpu hipnotizatua ikusteko. Egia esan ez ziren bakarrik irla horretako medikuak iritsi, herrialde desberdin askotakoak baizik.

Gizon hura hila zegoela zirudien, ez zuen jan beharrik, arnasa estu-estu sentitzen zitzaion eta ez zen mugitzen. Denak harritu zituen gauzetariko bat zera zen: bere gorpu-

tza ez zela batere eraldatzen. Izan ere, Bedloe doktorea lurrean hilik aurkitu zuten egun hartatik ez zitzaizkion hartzazalak luzatu ere egin. Horrelako gizon bat edukitzea ez zela gomendagarria pentsatu zuten medikuek, hobe zela, berriro esnatzeko posibilitaterik ez zuenez, hiltzea. Hartzea nahiko kostatu zen erabakia izan zen eta alde desberdinen arteko guduak ere sortarazi zituen, baina azkenean hiltzea hobe zela pentsatu zuten. Hala ere, hil baino lehen bere organoak nola zeuden jakin nahi zuten. Askoren ustez, hau izan zen hil nahi izatearen arrazoia, egoera honetan gorputza nola dagoen jakin nahi izatea, alegia.

Hilabete batzuk pasa ondoren ospitale batera eraman zuten botikaria. Esan bezala, dena gizonaren gorputz barnea ikusteko prest zegoen eta hildako gizon bati egiten zaion bezala, azala ebaki zioten. Orduan, momentu hartan bertantxe, mediku guztiak izutu zituen etsipenez beteriko oihu sakon eta histeriko bat entzun zen:

BIZIRIK nag...!!!!!!!!!!!!



Superbizipenaren burruga ikaragarria

Ainhoa Muruaga Lejona
Lauaxeta B. I.
MUNGIA

Nire heren-heren-heren amonaren garaian hasi eben eraikitzen, (nire gurasoek hori esan eusten, behintzat) eta une hartan amaitu berria zan.

Begiratzekoan zerbait berezia sentitu neban sabelaren ahoan (bai, nire sabela sentikorregia da, badakit, baina zer egingo dot nik ba?); patuaren deialdi beldurgarria deitzen dautsoe batzuk. Beno, ez dakit zer zan.

Kolore gris ilun samarduna zan eraikin hura, handi eta perfektuegia nire gusturako, egia esateko.

Arraioa! Zergaitik lehiatzen ote zan jendea horrelako gauza ikaragarriak sortzen —galdetu neutson nire buruari— ez eben ezertarako balio, eta nire moduz epotx samarra bazinan, osorik ikusteko gorantz ta gorantz begiratu behar zenduan, eta azkenean kokoteko jasanezinezko minez helitzen zinan etxera.

Ez neban ulertzen, benetan, baina ez nintzan ezer esatera ausartu, zeren eta, zirudenez mundu guztiari zazpi mirariak bat eginda iruditu jakon. Mila Ohhh! eta Ahhh! entzuten nebazan nire inguruan eta, noski, kokolo samar sentitu nintzan eta nik ere ohh! eta ahh! esan neban —«donde fueres haz lo que vieres»— esaten eustan nire Burgostar amonak.

Jendea ehundaka sartzen eta irteten zan, eta denok korrikan eta non zapaltzen eben begiratu gabe, noski. Ai Jauna! Jendea ez dago bere senean: zapaltzen bazaitue zapalduta zagoz eta akabo! Benetan arriskutsua da kalera irtetea. Ni ere askotan egon naz hiltzeko zorian morroi zuhurra izan arren; ni beti nabil bazter guztien albo-albotik baina...

Beno, beno, goazen harira: han nengoan ni lepogogordurarekin eraikin madarikatua hainbeste denboraz begiratzeagaitik. Jo! Oso aspertuta nengoan —ni oso errez aspertzen naz, egia esateko— eta alboan neukan nire anaia-ri: «Zer, joango ote gara etxera mutil? Jateko ordua da» esan neutson. Baina bera oso geldirik egoan goruntz begira kristoren kokolo itxuraz; entzun ere ez eustan egin nere ustez, bera oso errez hunkitzen da. Etsipenez zizpuratu neban, zeren eta banenkien zer ziran gixajoak eukazan kiska harek. Itxaroten neban bitartean bi aldiz bultzatu behar neban ibiltari aztoraturen batek zapal ez eian. Baina azkenean mundura itzuli zan eta: «Hona etorri behar gara bizitzera»—esan eustan.

«Baina mutil» —erantzun neutson «gure etxean ederto gagoz. Halakoxe ideia, orain mudantzaz gora ta behera hastea, ez gizon ez, ken tontakeri hori burutik».

Zergaitik esan neutson ere ez dakit: nire anaia ezagutzen dauanak bere buru gogorrean ideia bat sartzen bajako kentzeko erarik ez dagoela ederto daki. Jo! zein tematia dan.

—«Hemen bizi behar gara» —errepika eban.

Ala, ala, kaka! esan dodana, ez dago erarik. Egin daiteken gauza bakarra ixilik egotea eta ia noiz ahazten

jakon uneari itxarotea da. Morroi ona da, baina setatien artean setatiena.

Etxera itzuli ginan ta han, jaten genduan bitartean, mudantzako planak egiten hasi zan.

—«Zu jota zagoz —esan neutson— etxe hori jende dotorearentzat da, eta ez guretzat. Gainera gure lagun guztien etxeetatik urrunegi dago».

—«Lortuko dogu, egitan, eta lagunak noizbehinka etor daitezke gu bisitatzera».

Azkenean, eztabaida askoren ondoren bere eretxira ekarri ninduan; beno, egia esateko gure statusaren hobakuntza bat izango zan horrelako etxe batetan bizitzea (ni snob samarra naz, egia esateko; baina, nork ez dauka akatsik?, ba hori).

Beno, nire istorioaz jarraituko dot: esaten nebanez, nire anaiak azkenean konbentzitu ninduan, eta horrela, txiripaz eta kokoltasun horregaitik hasi zan gure superbi- zipenaren burruka ikaragarria. Lehenengoa, noski, eraikin madarikatu hartan guretzat leku egokia aurkitzea zan; ehun eta hogeitabost pisuetatik gora ta behera ibili ginan, bazter guztiak arakatu genduzan eta azkenean, ni kokoteraino nengoanean, aurkitu genduan. Bai, lekutxo lasai eta polita zan, eta han geratzea erabaki genduan.

Mudantzaren egunak ikaragarriak izan ziren, beti leku batetik bestera gure tramankuluekaz harantz ta honantz; egia esateko gure gauza guztiek ez eben ia ia ezertarako balio, baina badakizue, bat bere gauzetara ohitzen da, gehienetan gauza arraroetara: paper lohiak, artozko garoak eta halakoxe gauzetara.

Eta azkenean gure bizitza berriaren lehenengo eguna heldu zan: atsotxo xarmangarriaren pisuko bazter batetan

instalatu ginan. Lekurik onena zan noski; atsotxoak ez gindukiez inoiz nekaraziko guk izorratzen ez bagenu (hori uste genuen guk behintzat). Horrela gure behar bakarra ohartzeke pasatzea zan, eta hori ez zan oso zaila guretzat, ohituta gengoan eta. Gainera janari falta ez zan egongo; emakume hura ez zan oso arduratsua, eta beti egoan jateko zertxobait bazterretatik. Gainera nire anaia eta ni asetzeko errezak ginan: edozein gauzaz konformatzen dan jendee-tarikoak.

Ai ama! zein polita zan gure baztertxoa; lohi samarra, egia esateko, baina ederra guztiz ere. Hemen guretzat defentsa bat egin behar dot; beno, defentsa bat baino gehiago azalpen bat da: guri ez jaku zakarkeria gustatzen, ez gara zaztar batzuk, jendeak esaten dabezan gauzei ez egie-zue jaramonik egin, difamazio hutsak dira eta. Gu morroi garbiak gara, baina badakizue: jendeari zeozer buruan sartzen jakonean ez dago erarik, ez.

Luzaroan oso pozik bizi izan ginan emakume haren etxean. Ai ene! Zein lasaia eta erosoan zan bizitza: janari esku beteka eta beti bero-berotxo eta inogaz sartu gabe, zeren eta gu oso bakezale eta zintzoak gara, benetan.

Baina zoritxarreko goiz batetan, nire anaia eta ni bazkari bila joan ginan; beti atsotxo lo egoanean joaten ginan izorra ez gengian, gu oso kontsideratuak gara ta. Nik ez dakit zer gertatu zan goiz hartan, baina atso madarikatua (barkatu adierazpenagaitik baina merezi dau) normala zen baino lehenago itzartu zan, eta gu gure eguneroko ogiaren bila ginoiazanean, sukaldean agertu zan bapatean. Ai ama! ikusterakoan asko izutu ginan, eta zoro bi bezala hasi ginan arineketan gorantz ta beherantz ikusi ez gengizan. Baina ikusi ginduzan eta orduan garraisi izugarri bat irten zan bere ahotik «aohhahhhjjjj» —edo halako zerbait— eta gero

hemen esango ez dodazan bi edo hiru hitz zikin (nik ez neban inoiz pentsatuko halakoxe atsotxo xarmangarri batek hizkera hori eukiko ebanik, baina esaten eustan ba nire Burgostar amonak: «el hábito no hace al monje, niño»). Ta gero, gauza ez bait zan horrela geratu (zenbat gorroto dagoan munduan, Jauna!) Astopotro hark erratz bateri oratu eutson eta hamar minutu sukaldetik gure atzetik isaskadaka ibili zan, —bere aurpegi baketsu ta goxo ha hiltzaile sikotikoek dauken aurpegian bihurturik— gure espeziea akabatu nahian. Norbere bizitza kontserbatzeko kristoren korrikak egin behar dira, eta guk korrika ta korrika egin genduan gure baztertxora itzuli ginan arte.

Gutziz akabaturik, izerditan eta arnasa ondo hartu ezinik, guda berriro hasi ebala ulertu genduan. Ai! zein gogorra dan bizitza; bakezale bazara ere etengabe borrokatu behar dozu bizirik jarraitu nahi badozu.

—«Errua zurea da —esan neutson anaiari— gure etxean gelditu izan bagina orain lasai egongo ginatekeen».

Nire anaia arnasa normala berreskuratzen saiatzen zan, eta arnasbeharren artean erantzun eustan. Berarentzat korrikaldia niretzat baino gogorragoa izan zan, zeren eta meategi batetan opor batzuk igaro ondoren (bere ideien artean beste bitxikeri bat) tisisa harrapatu eban eta oraindik ahul samar egoan.

—«Beno, zu ere konforme zengozan, errua ez da nirea bakarrik». Minutu batzutan geldi-geldirik egon ginan ezer gehiagorik esan gabe, usain arraro bat sentitu neban arte gure baztertxoan.

—«Zer da hori?» —galdetu eban nire anaiak eztulka artean.

—«Itxaron! Urten egingo naz» —erantzun neutson ausarti plantak egiten. Batzutan horrelako gauzak egiten dodaz, heroi gehiegi ikusi dodaz filmetan eta; baina beno, bakarrik besteak hunkitzeko egiten dot: guztiz kokoloa ez naz eta nire bizitza arriskatzea ez jat batere gustatzen.

Urten nintzan eta musturren aurrean ero hura neukan tubo bateri oratzen.

—«Labazomorro nazkagarriak, orain ikusiko dozue».

Labazomorroak bai, baina nazkagarria zu izango zara» erantzuten nindoanean, likido eranskor batez busti eustan gorputz guztia.

Han itsatsita geldituko nintzela pentsatu neban, baina azkenean indarrak berreskuratu nebazan eta nire anaiaren albora heldu nintzan.

«Arin, mugi hadi; honek pozoinduko gaitu eta».

Eta urten ginan, eta azkenean sukaltarri behean ezkutatu ginan. Ia ia ez dago esateko gehiagorik. Etxe berdinean bizi gara, oraingoz ahul samar gaudelako: nire anaiak lau hanka daukaz elbarriturik, eta nik, hobeto egon arren, oskola nahiko bigun daukat pozoinagaitik.

Pensatzea bakarrik izugarria da, baina ez dot inoiz atso madarikatu hori barkatuko. Orain egun guztia igarotzen dot mendeku ikaragarriak planeatzen. Badakit zer egingo dodan: hobeto aurkitzen nazenean bere hanketatik gora ibiliko naz eta sustoren sustoz hilko da atsoa. Horrela nire espezie guztiagaitik mendeku hartuko dot, bai jauna. Eta bera hiltzen danean nire anaia eta ni azkenean lasai biziko gara gure etxean.

Jo, jo, jo, ez daki atso gixajoak zer gertatuko jakon. Etxeko lagun ederrak euki ebazan eta ez zan horretaz kon-
turatu.

Hain polita izango litzatekeen mundu guztiari laba-
zomorroen espezie nagusia eta gizakumeak baketan bizi
daitezkeela azaltzea.


Baina badakizue zelakoak diren gizakumeak: ezjaki-
nak eta gupidagabekoak.

Jo, jo, mendeku hartuko dogu egun batetan eta ikusiko
dabe gizakume madarikatu guztiek.

Ai, oso nekatuta nago, ezin dot gehiago idatzi.

POESIA. A maila

B.B.B.ko 3. kurtsoa, U.B.I.
L.H.ko 2. gradua eta
I.E.E.ko 2. zikloa.



**Bi hitz nire
pentsamenduen maizterrari**

Maria Aranburu Aseginolaza
Garaialde Lizeoa
URRETXU

Jaio da eguna:
Argia, zuria, garbia, bizia.
Akabo kobazuloaren iluna:
bakartasunaren islada,
tristeia, isila, ahula... hutsa.

Ohearen gozotasuna utzi beharra,
goizeroko kontu zitala.
Argiaren bortizkeriak
gorputzaren barrena
ziztatu

zarrastatu

zanpatu

zaplatu... eta zassst!!

Oroimenaren makina martzan.

Pentsamenduaren txoko majiko horretan, urrezko altxor
gisa zaitut gogoan.

Ez dakit...

balikete zure begirada iraunkorra izatea

arnas indargarria,

barre algaratsua,

ibilera petrala,

usain berezia, edo...

... zure izate hutsa?

Auskalo.

Zaude hor!
Oroimenaren erretaulkian,
zelofanezko laino purpuren alboan,
diamante graffitinatuen parean,
txarolezko burbuilen gunean...
—Mmm, zera... Newton-en legea izan daiteke...
Puff...
Maisuaren begirada tiranoaren
 zamapena,
monotoniaren
 desertuan,
apurka mamurtzen,
 Ahultzen ari nauen monotoniaren esku...
bakarrik sentitzen naiz.
Liburuen hitz erritmikoetan gerizatu beharrak,
aulkiaren gogortasunera moldatu beharrak,
kalkulagailuari
 ehunekoak
 milakoak
 milioiak
 zenbaki infinituak
 zenbatu arazteak,
errumestu
 erraustu
 erretzen nau.
Askatasunaren usaingarden amaigabea,
derrigortasunaren etsai,
estutzen nauten hormetatik haruntz!
 hedatuz
 hurrunduz
 aienatuz doa...

Ni berriz... preso:

Ezintasunaren hatzaparretan konprimaturik,
menpekotasunean kateaturik.

Baina... ez!!

Inork ez dit barneko askatasuna ekidingo:

Zure irudia,
zerutiarra,
aske senti dezaket nire baitan,
kotoizko olatuetan murgildurik balebil...

EZ opresioaren mamuak

EZ zigorraren deabruak

EZ mehatxuaren munstroak... INORK!

Inork ez dit plazer hau ukatuko:

Gorderik daukat gozamenaren giltza sakratua,
nire erraien preso zara...

... menperatzen zaitut.

Zu berriz... morroi:

Ezintasunaren hatzaparretan konprimaturik,
menpekotasunean kateaturik.

Edo...

agian...

Ez al zara ZEU izango
nire baitan, jauntxo??

Ez al zara ZEU izango
nire sentimenduen hauspo??

Txotxongilo bat nauzu... mugi nazazu!
bizi nazazu!
maite nazazu!

ZEU

NEU

... GEU: Nire izatearen pilula.

Amaren hizkera apala,
aitaren babes epela.

Neureen usain ezaguna dasta dezaket orain;
sukaldeko lurrun konfortagarria arnas dezaket,
bakea,

lasaitasuna,

atsegina

darion airearen zapore garbia...

etxetiarren epeltasuna.

Kabiaren gozotasun honetan... zasst!!

Oroimenaren makina martxan.

Berriz ere,

zure existentzia urtua

nire barnean barreiatuz,

zure presentzia misteriotsua

nirearekin bateratuz...

ZU

NI

... GU.


Hil da eguna:

Argia, zuria, garbia, bizia.

Jaio bedi kobazuloaren iluna:

bakartasunaren islada,

tristeia, isila, ahula... hutsa.



Bizitzaren gurpilean

Gorka Urzelai Izagirre
Garaialde Lizeoa
URRETXU

ILUNPEAN...

Gau beltzaren menpean
bakarrik nago,
galduta noraezean.

Bi haitz tontorren
bular artean,
ontzaren oihu izukorra
sarturik barren barrenean.

Niri begira
begiak handitzen,
ikusmena zorrozten,
goitik behera.
Bere begirada luzea
beti ilunean...

Gauaren hegapean
entzunik ontzari,
bihotza taupadaka
eskuak dardari.
Zer dela ta diot nik
izua gauari?
Hatzamarrak estutuz
ekin borrokari.

Bi haitz tontorren
bular artean,
hemen,
zulo sakon ilunean.
Basakatuak, basaurdeak,
hartzak, otsoak, azeriak...
Basapiztiak, guztiak.
Ontza, miruak,
putreak, arranoak...
Hegazti harrapakariak.

Naute begiratzen,
BEGIRATZEN NAUTE.

ILUNEAN,
BETIRAKO ILUNPEAN?

Hemendik,
zulo hotz honetatik
behar dut irten.

Barne bultzadaren eraginez
hasirik aurrerantz eginez,
malkarrean gora
noa behetik gora!
Belaun berrien indarrak
mugituz zango eta oinak.

Belarri ta begiak
erabat zorrotzuz,
eskuak albotara
bidea zabalduz,
mugimendu guztiak
zehazki aztertuz,
banoa tontorrera
apurka hurbilduz.

Malkar gogorra
zorrotza haitz tontorra.
Geroz eta gorago
gogorrago,
oin arinak
geroz eta pisutsuago,
ene bihotza, taupada bizian,
geroz eta biziago,
baina barne bultzada
handituz doa geroz eta gehiago.

Ilunean,
oraindik ilunpean nago
BAINA EZ BETIRAKO.

Egun berriaren ametsetan
bere atzetik aldatz gogorretan,
ametsa ia egi bihurtzekotan.

EGUZKI BERRIAREN dirdira


bapatean...
haitz tontorraren gainean.
Argitzen
hasi da argitzen,
eguna da azkenean!
Gorputz nekatua
eutsirik
ene zango nekatuen gainean.
Azkenean
haitz tontor zorrotzean!

Eta zorroztu ditzadan berriro
eguzki errainuen dirdirapean,
zirriborrotsu ikusten duten
begi nekatuak.

Begira nago, begira...
Haitz tontor honen
puntu gorenetik
aurreko lautada zabalera.

Atzean utzirik
orain
eguzkirik ere, jotzen ez duen
zulo sakon hotz,
heze eta laiotza,
ilunpe beltzaren sabela.
Aurrean dut
argitasunez eta itxaropenez beteriko
lur zabal emankorra...
Sufrimenduaren ordaina.

BIZITZAREN GURPILEAN
ilunpetik argipera.




Ezezagun maite

Eriz Zumarraga Azkarate
Alkartasuna Lizeoa
BEASAIN

Hemen,
tristuraren erreinu kupidagabea.
Etsipenak eta saminak,
eskutik loturik,
bat egiten duten zulo mingotsean...
kokaturik,
ez dut ezer sentitzen
bihotza zulatzen didan ezpata zorrotza baino.
Irteerarik gabe,
zulo ilunean gatibu...
denak kolore bera hartzen du:
BELTZA,
eta bere iluntasun ezkutuan
murgiltzen naiz,
erreinu amaigabe baten magalean.
Eta nere bakardade gordinean...
galdetu diot iluntasunari
baina ez dit erantzuten...
Eta galdetu diot kazkabarrari
zergatik desegin zidan
ene esperantza ttipia?
Eta galdetu diot jelari
zergatik lapurtu zidan
ene sentimendu xaloa?
Eta galdetu diot haizeari
zergatik lapurtu zidan
ene amodio ezta?
Eta galdetu diot tximistari
zergatik apurtu zidan
ene bihotz gajoa?

Eta galdetu,
galde egin,
galdekatu.
Eta itaundu,
itaun egin,
itaundu
nituen.
Baina,
kazkabar kolpeak esan zidan
eta garrangak,
eta haize firfirak,
eta trumoi orruak esan zidan,
bera izan zela
ene pairamenaren sortzaile
eta nahi zaitut orain
betirako ahaztu
ene maitale.
Alperrik da, ordea.
Alperrik da,
nahita ere ezin
zugandik urrundu,
zugandik aldendu.
Nahi eta ezin...ezin...
zure arpegia ene...ene....
erraietan
ene...ene,
bihotzean marrazturik...
marrazturik dago,
kolore biziz... marrazturik.

Alperrik...
zure dizdira ahaztu,
dena...dena iluntasun bait da.
alperrik...
zure hitzak ahantzi,
dena... dena iluntasun bait da.
Nahi eta ezin...
nahi eta ezin...ezin egin.
Eta badakit,
gurea,
nahi eta ezinezko istorioa dela,
ni zuretzat,
ezer ez eta deus naizela,
badakit hala dela...
eta nahiz eta nahi...ezin.
Eta ez dut nahita egin
nahi gabe...dagit zin.
Maitatuko zaitut betirako
ene begi urdin,
nere bihotzarekin.
Ene ezpain ziztrin,
nire barrearekin.
Ene izaera fin,
neure arimarekin.
Eta izkinaren bestaldean,
saminaren kolean
itxarongo dut...
Egun eta gau...
negu eta uda,
egongo naiz zai...
zuk noiz bira,
zuk noiz galde,
zuk noiz nahi.



Semeak beti seme

Izaskun de los Mozos Olaizola
Sto. Tomas Lizeoa
DONOSTIA

Egunsentiko eguzki nagiak,
loaldi luze baten ondoren,
bere lehen irribarrea,
bere lehen argi izpia
lotsati, leunki
lurrera azaltzen duen eran;
udaberriko lore ttiki goiztiarrek,
mendiko zelai berdeetan,
beren kolore biziko aurpegia,
beren gorputz lirain xarmangarria
erakusten duten moduan,
honela, ...
zinen azaldu zu mundura:
aurrean zabaltzen zen espazio
ezezagun argitsuari
kuriositatez, harretaz begiraturaz.

Zu gure bizi.

Zu gure poztasun iturri.

Atera zenuen lehenik burua,
buru ttiki borobila
emeki-emeki, poliki,
mugimendu gogorrik egin gabe,
larrosa gazte panpox,
sagar-lore zuri ederrek
beren petalo zetatsuak
airera zabaltzen dituzten eran.
Eskuak ondoren,
esku haragitsuak
zenituen astindu eta...
besoak azaldu ziren,
sendo baina ahul,
fresko baina simurrak.

Zu gure irri.
Zu gure bizitza pizgarri.

Mina, sufrimenduak,
garraisi itogarriak
ziren bapatean amaitu
nire aurrean,
begi bustien parean,
zintudanean ikusi.
Egun euritsu, trumoitsu baten ondorenean
eguzkiz jantzi zen nere bizitza
zu...
muttiko ttiki pottolo
agertu zinenean,
zure negar ozena
aditu nuenean,
nere bular gainean,
nere beso izerditsuen artean,
sentitu zintudanean.

Zu gure bizitza zati.
Zu gure euskarri.

Baina...
zinen ezberdina:
borobil-borobila zenuen burua,
lodikotea gorputza,
larru-azal leuna, berriz,
zuri-gorriska
eta begiak...
begiak haundi, luze, arraroak.

Zu mutil jaioberri ahula.
Zu haurtxo subnormala.

Zaila zitzaigun hasieran
errealitate krudel, ankerra,
zure gaixotasun sendaezina
onartzea.

Baina...

zure irribarre zabal lotsatiek,
begi luze, handi, triste horiek,
gauerdiko negar-zotin isilek
gintuzten garaitu,
gintuzun zureganatu.

Zu semetxo maitea.
Zu gure jaun eta jabea.

Hazi, hazi zinen astiro eta...


poliki-poliki
mugitzen hasi.

Kostata, asko kostata,
behin eta berriro lurrera erorita,
amore eman gabe,
ibiltzen ikasi.

Ahotik,
ezpain arrosa, fin horien artetik,
lehen hotsak,
lehen hitzak leunki
igorri zenituenean
zoriontsu, harro sentitu ginen.

Zu hain indartsu.
Zu hain kementsu.

Barne-mundu misteriotsu batean
zara oraindik alai bizi,
zuretzako hain eder, hain ezagun,
guretzako, ordea, ulertezin den horretan.
Zara jadanik mutiko gaztea
gure mirabe eta maitea.
Zara, azken finean,
GURE SEMEA.



Une hartan... eta orain

Patxi Galarraga Aiestaran
Lizardi B.I.
ZARAUTZ

UNE hartan
haizeak
galdutako erreinu batetara
eramango zituen
beldurrez
ixilka irteten ziren
gure ahotsek
ero bilatzen zuten elkar
doinu bakar egiteko
eta
argirik gabeko
ilunik gabeko
une hartan
erortzen ziren
kea uretan legez

Urguri eta kolorgea zen
zure
elurrezko azala
laztantzuen nuen
une hartan
edozein laztan
edo fereka
dinamita zenean
eta musu bat...
musu bat
eztanda
mugimendu bakoitzaren
arrastoaz
airea margotu
nahi genuen
ontziak itsasoan
apar zuriz
egiten duen bezala

Jolasean zebiltzan
gure elkarrizketak
ixilka eta leun
nahasten ziren
une hartan
haizeak eraman ez zitzaizkien
erregutuz
korapilo egiten zuten
urtutako zumitzezko hitzak
sentimenduz bait zeuden
lehertzear
eta taupada bakoitzaren
oihartzunek
zure bihotzean
nahi bait zuten
barneratu
poroetatik isuriz

Eta atzeraka zegien
kontua ziren
taupaden oihartzunak
ere nahi genituen isildu
eurak bait ziren
denbora
eta erritmo adierazpen
bakarrak
argirik gabeko
ilunik gabeko
une hartan
egun edo gaurik
ezagutzen ez zuen
une hark
bukaera izango zuela
oroitaraziz

Elkarren
ezpainen taupadak
azken aldiz urtzen ziren
une hartan
isuri zitzaigun
negarraren beira
islada ziren begietatik
malko moduan
emozioak
askatu nahian
eta malkoek ez zekiten
zergatik ziren isuriak
distira epelek
isiltasun unearen
hurbiltasuna
adierazten zigutelarik
eta
maitasun harea
tantaka
galduko zenaren
beldurrez
ez nintzen
lauso gozo hura xurgatzeko gauza

Amets hutsal
eta oroimen besterik
izango ez zen
une haren
azken segunduak
urte bilakatzea
nahi nukeen

ORAIN

zin dagit

zerbaitek negar egiten duela

nire barnean

zure oroi-

gorputzarengatik

(enegan ia gorpu bilakaturik)

berunezko itsasoan

oraindik

saltoka

kolpeka dabiltzan zure

ahotsaren oihartzunengatik

ene itsaso berunezkoan

zerbaitek

negar dagi

nire barnean

zure bapateko

urruntasun murriztezinarengatik

negar dagit

zurengatik

eta nirengatik

jadanik ez bait nago


zure zain

Eta malkoek ez dakite

zergatik diren isuriak

POESIA. B maila

B.B.B.ko 1. eta 2. kurtsoa,
L.H.ko 1. gradua eta
I.E.E.ko 1. zikloa.




Amodioaren itsasoa

Garikoitz Berasaluze Ostolaza
Lizardi B.I.
ZARAUTZ

Ibiltzen noa,
kaioak atzean utziaz,
ibiltzen maitasunaren mundura
ibiltzen noa bakardaderuntz,
poeten modura.
Ibiltzen, itsasbeherak utziriko
zure urratsak jarraituz,
ibiltzen,
amodioaren itsasora.
Han,
non amodioaren uhinak
diren lehertzen,
Han, non poeten zertzeladak
diren itzaltzen,
Han,
non ametsak
diren jaiotzen,
 Han,
 zu eta ni,
elkarren ondoan,
amodioaren itsasoan,
 maitatzen.

Eta
gure bihotzeko hatsez
sorturiko
gau izartsu hau
agortzen dugunean
badakit, zuretzat,
ahantziriko oroipen bat
izango naizela,
ximelduriko arrosa bat.
Badakit,
zure hondartzara aspaldian
iritsiriko uhina izango naizela,
zure itsasoak
eramaniko amodio harea.
Badakit,
zure geltokian geratuko ez den
trena naizela,
zure belatzak azkar iragango
dituen zaldi askea.
Badakit.
Baina halere

zuga sinisten dut
egunabarrero jaiotzen den
eguzki nerabeen bezala
zuga poetek amodioaren itsasoan
ilargiak gau izartsuan
eta herriak askatasunean bezala
zuga
bakardeak bere itzalean bezala.
Zuga sinisten dut
ene laztana.
Zuga.
Eta zuga sinisten dudanez,
ibiltzen noa,
zure hegazpean duzun itsasora
iritsi nahian,
ibiltzen noa bakardaderuntz
poeten modura,
ibiltzen,
itsasbeherak utziriko
zure urratsak jarraituz,
ibiltzen
amodioaren itsasora.




Auñamenditik zure leihora

Garikoitz Berasaluze Ostolaza
Lizardi B.I.
ZARAUTZ

Auñamendiko
bakardadeak
amodioa zuzperten
duenean
 eta
txorien kantu
goiztarrekin
 batera,
belatz menditarren
muinean
 zure irribarre
 estimatua
dakusadanean,
 beleek
hots difuminatuak
 dakarzkidate,
izadiaren
beste sinfonia bat
 bailiran,
irudimenaren sintonian

Zure maitasun
hitzak
soilik
badira ere.
 Eta arrastian,
ene itxaropen
iturria
 agortu
eta
gau berriaren
orkestrak
 bere
azken sinfonia
aurkezten duen
 bitartean,
 isiltasunean murgildurik,
ene
ametsak
 zure gelako
leihoruntz
 doaz hegaz;
 etsituak oro,
nire esperantza
 apurraren
azken malkoak
bailiran lez,
 berauen
hegazpean
 zure hatsa
haize biderakuslea
 izango denaren
itxaropenez.



Betidanik, betirako

Ion Alvarez Gerriko
Orereta Ikastola
ERRENTERIA

Ez.


Zeure begiek erortzen uzten duten tristurak,
begietatik amiltzen zaizkizun malkoek,
egin gabeko amets zoragarrienaren desioak
utzi dizkizun arrastoak,
zubi dirudien ahoaren eiteak,
zure damuak,
ez du aurkituko
ene besoetan
etsipena desagertaraziko dizun
sendagaia,
ez...

Ene bihotz-garraren
jabea
zinen, zoriontsu nintzen;
ikusi zintudanean
erakutsi zenizkidan bideetan zehar
eraman ninduzun,
sutan dagoen etxe zaharraren antzera
kiskaltzen, astiro,
gauaren ilunean.

Beharbada,
zure baitan,
zeure begietako goibeltasunean murgildurik,
ezkutaturik,
goiztiriaren lehen eguzki izpia iristen den bezala,
herabeti,
ilargiaren argipean hasi eta
aurkitzear dauden bideetako bidaiaria
nahi nuke izan...
Ez da hain beltz
gauaren iluna,
beharbada...
Konortea galtzeko prest dagoen
ringeko borrokalaria,
honen azken
kolpea...
Edo neguko lorearen pareko,
negu luzea amaituko denaren
beldur...
Agaian itsuak dakusan
lehen argiaren
antzeko...

Bai.
Mendietako belarra,
berdetasun garbia,
haizearen doinupean dantzari,
alde baterantz, besterantz...
Urdina zeruan,
hegoak astinduz txoriak
marraztuz oskarbia,
harantz eta honantz...
Nere gorputzean sarturik maitasuna
zurearen barnean ibiltari,
bai...
Maitea,
itsuak dakusan lehen argia...
Ring gaineko borrokalari eroria ia...
Ene besoetako sendagaia...
Neuk ikasitako,
zuk erakutsitako bideak...
Sutan dagoen etxearen garrak,
amets zoragarrienak eraiki...
Gauaren ilunak ez du itzaliko
gure maitasunaren haizea...

— M.I.B.B., betidanik nere maitea
izan denari, horrentzat.—



**Omnia vincit amor—
maitasunak dena garaitzen du**

Agurtzane Auzmendi Agirre
Batxilergo Institutua
BEASAIN

Maitasun galduaren ibilbidean
oin arrastoak ikuspegi ziren,
oroitzapenaren portu hartan
dena ez zen zuria, ez eta beltza ere.
Ilun ikaren soinean
lau haizetara eta
egi latzari aurre eginez
soineko beltzen joscurei ihesi
maitasuna dakusagu,
biziaren legeei jaramon barik
heriotzaren tristuratik urrun
dena ez da zuria, ez eta beltza ere.
Fedearen argiak, sinismenaren indarrak
betierekoak izan bitez
zeruaren maitasunagan.
Zazpi egunetan sortuak
naturaren epaile gara.
Fede biritza, bas-arbi antzera da,
hartzen du gizonak, eta ereiten du
bere sorroan,
hazi guztietan txikiena da;
baina hazitzean...
eltzekaririk haundiena da, eta
zugan egiten da, zeruko
hegaztiak haren adarretan
kabi egitera ere etortzen bait dira.
Fede biritza, legamiaren antzera da,
emakume batek hiru lakari irinetan
sartzen ditu, guztia harrotu dadin arte.

Fedea, sinismena, maitasuna,
gure bizitzen euskarri, oinarri, arrazoi
eta zergati dira.

Fede bizitza, lurreko maitasunaren parekoa da,
bihotzera deia lortzen dugunean,
maitasuna ezagutzen dugunean,
hura ulertzen saiatzen gara,
hura ezagutzen ahalegintzen gara.
Zeruetako maitasuna, ordea,
ikus-ezin den gidari baten
herri da,
horregatik...zaila gertatzen da,
zaila gertatzen zaigu
bihotzera deia lortzen dugunean
dei horri AMEN bat aupatzea.
Maitasun ezagun baten erraztasuna,
ikusgarri den argiaren dizdira,
besarkatzen gaituen aitaren laztana,
ikusten dugu, onartzen dugu.
Ikus-ezin den bizitza
errainurik ez duen fedearen oinazeak,
lekukorik ez duen aita baten maitasuna,
betitik ezagutu, baina
ulertzen zaila den
fedea,
zeruetan den gure Aitaren erreinua,
ez dugu ikusten, baina sinisten dugu.

Euriak lurra bustitzen duen antzera
eguzkiaren errainuek lurra argitzen duten bezala,
hala dakusa zeruetako erreinuak guregan.

Gizakiak garenetik gara
errudun, gara gaizkile, gara gizatxar,
gara dudakorrak,
eta hala gara baikor ere.

Guregan inposatzen den maitasuna,
salbatu nahi gaituen maitasuna
arantzaz koroatzean
iluntasun betierean,
jaio eta hiltzearen aurrean,
bizitzaren bukaeran,
samintasun eta atsekabeen
topatzen gara.

Fedea, isiltasun baten oihartzuna da,
atsekabeen irrifarra
heriotzaren argitasuna,
arbuiatuen itxaropena,
txiroen aberastasuna,
atsekabetuen poza...

BIZIA da guretzat fedea,
DENA da guretzat fedea.
Heriotza ondorengo ZER hori...

betiereko bizitzaren izatea...
sinismenaren arrazoia
ulertzea,

nire pentsamenduen mugatik
URRUN ikusten ditut,
bihotzera deia lortzea eta ulertzea,
fedea bizitzea eta konkistatzea,
urruneko argi baten errainu TTIPIA
da niretzat.


Nire ingurunera begira eta
denek ulertzen dute,
onartzen eta bizitzen dute
fedea, SINISTEN dute.
Niri ordea, zaila zait oro, eta
erori naiz ezinean,
iluntasun etengabe batean,
etsipenean...,
horregatik, eskatzen diot goiko Aitari,
inposatu beza nigan bere maitasuna, eta
biztu
oso sakonean dagoen
larrosa gorria, ...
FEDEA.

Deus optimus maximus,
de profundis vocavisti,
et inter nos
tui filium relinquisti.

Laetitia Dei, laetitia populi.

Jainko guztiz on eta haundia
sakonetik dei egin zenuen,
eta gure artean
zure semea utzi zenuen.

Herriaren Poza, Jainkoarena.



Plisti plasta

Belen Oronoz Antxordoki
Batxilergo Institutua
HONDARRIBIA

Bizkarrean arrauna hartu ta
untziratu ginen goizaldean
itsaso mugagabe hartan
uhinen gaisetik, PLISTI PLASTA,
untzia kulunkan, PLISTI PLASTA

Olatuak gidari dira,
untzia berriz, haien jostailu
Orain, ZU eta NI bakarrik
munduan ez da inor gehiago
ZU, guztian gidari
NI, zure zerbitzari

Uhinen PLISTI PLASTA sakontzen
zeruaren kopeta iluntzen
Zergatik zara ZU amorratzen?
Zergatik naiz NI zutaz beldurtzen?

ZU ehiztari, NI untxi bildurti
zure hatzaparretatik ihesi,
ezin ordea ihes egin.
Batzutan ETSAI, bestetan LAGUN
benetan, ezusteko zara ZU,
ezusteko LAGUN, ezusteko ETSAI

Uhin en kanta atsegin hura
orroe zakar bihurtu da...
PLISTI! PLASTA! amaigabea
PLISTI! PLASTA! burrunbatsua
PLISTI! PLASTA!, untzia hondorantz

nahigabe sakona sentitzen dut
NIRE arima preso ZUREan,
irabazle gertatu zara ZU
amaigabeko dolu honetan.
Ez zaitut inoiz ahaztuko
AGUR! LAGUN zahar, AGUR! ETSAI sotil

PLISTI PLASTA, itsasbazterrera
PLISTI PLASTA, hondar gainera,
kaiok begiztatu ninduten,
ondoren seme eta sendikok


Nire gorputzaren aurrean
nigarrez emazte-semeak,
hau da mina! hau nahigabea!
ixiltasun burrunbatsuz
naramate orain etxerantz,
hau da tristura! hau dolumina!

Erretoreak bedeinkapena
gainontzekoek azken agurra,
azken desio nuen bezala
jaurti ninduten itsasora.
Uhin en gainetik PLISTI PLASTA
ZUrenganantz berriz PLISTI PLASTA

Ez dut arrenkurarik sentitzen,
bai ordea, barne-barneko
betirako lasaitasuna,
besterik ez zait geratzen munduan.
Orain, ZUrekin egon nahi nuke,
Nire betikortasunean...

Bateginik gaude orain,
betirako elkaturik
GU aldentzerik ez dago,
ama eta semea bezala
izaki bakarrean bihurturik.
GU...GU...GU...besterik ez dago

Bagoaz...egunsentian zehar
uhinen gainetik PLISTI PLASTA
mugarik gabe PLISTI PLASTA
tribuan PLISTI PLASTA



Ezetzta

Mikel Madina Ugartemendia
Axular Lizeoa
DONOSTIA

Banekien zure erantzuna zein izango zen
eta halere, ezetza jasotzean
zerbait histu zen nire barnean.
Galdutzat jotzen zintudan arren
ene bihotzeko zatitxo batek
baietza espero zuen.
Ene bihotzeko zatitxo hori
bukaera arte baizik galtzen ez den itxaropena
omen zen. Baliteke.
Eta zati txiki horrek,
izar nimino batek unibertsuan duen garrantzia bazuen ere,
nire aldartea guztiz aldatu du.
Ezetza onartuko nuelakoan nengoen
eta ez da hala izan.
Baina maite dugun pertsona ulertzen dugu
eta horregatik barkatzen zaitut.
Barkatzen, bai,
ni ez mintzeko beste bati esan bait zenion.
Berdin dio. Nahiago izango nuke zeuk zerorrek
esan izan bazenit;
baina, halere, ulertzen zaitut,
barkatzen zaitut.
Zeure adiskidetasuna, behintzat,
zoragarri izan zitekeelako
oroigarri gelditzen zait.

Aurpegira begiratzeko ausardia
izango ez ote dudalako susmoa daukat.
Ez nauzu gehiegi ezagutzen
eta agian horregatik ukatu ninduzun.
Zeure ezetza baietz bihur dadin nahi badut
neure burua ezagutarazi beharko dizut.
Baliteke horrela zure niganako eritzia aldatzea.
Baina gu bion elkarketa zaila ikusten dut:
urrun eta hurbil, arrotz eta lagun ikusten zaitut.
Lagunartean gaudenean lagun eta hurbil zaitut;
bakarrik gaudenean arrotz eta urrun.
Lagunartean gaudenean solaskide zaitut,
bakarrik gaudenean mutu.
Zergatik hori?
Badakit ez didazula erantzunik emango
maite zaitudan arren.
Ene bihotzeko zatitxo batek
baietza espero zuen;
azalpena behintzat.
Ez zenidan baietzik eman,
ez zenidan azalpenik eman.
Eta, halere, maite zaitut.
Nire bihotzean beti egongo da
zuretzat lekurik.
Behin eta berriko ezetz esaten badidazu ere.
Ene bihotzeko zati handi hori
bukaera arte baizik galtzen ez den itxaropena
da, noizbait eskuratuko zaitudalako itxaropena.
Ainhoa.

...Oihan nabarreko basahuntz lasterkariaren antzera, arrosa koloreko argi-printzen ñir-ñir bizienetatik heriotzea ehortzitako gauaren aho beltzera doa, trapalan, itzal mugikor guzien irudimen mamituezina...

...Betiko gure basamortu lehorretik ibai ondoko lur gizen hezeetara birlandatua izan da, zorionez, gaztetxo hauen belaunaldia eta, inork ezin uka ibiliz egiten dela bidea, eta idatziz idazlea...

...Belaunaldi berri pozgarri baten aurrean gaude. Lehiaketa hauetan nabarmendutako izenen bat edo beste euskal idazleen izartegi gorenera iritsi daiteke, bideko lanbroek ez badute desbideratzen...

...irakurlerik izango bada behintzat, idazle berrien pappina ponpoxak lotsaizunik gabe, gaztetasunaren hezetasun garbiarekin, apain eta lirain, jantziko du euskara zahararren ama-magala...

Jose M. Satrustegi



EK15020314
Irakaskuntza Ertainetako Gurean Eteraur Lehiaketa 1990

EUSKO JAURLARITZA
ARGITALPEN-ZERBITZU
NAGUSIA

Salneurria: 500 pta.
(BEZ barne)